

LITERATUR LEHIAKETA 2008  
ORIO



**ESKOLAUMEEN  
LITERATUR LEHIAKETA 2008**

**ORIO**



**ORIOKO UDALA**

Azala: Andoni Garate Labaka  
Legezko gordailua: SS 477/88  
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

# AURKIBIDEA

<b>Hitzaurrea.</b> <i>Iñigo Gaiton</i> .....	5
<b>Pio, pio, ahateak.</b> <i>Anartz Agote</i> .....	7
<b>Udaberria.</b> <i>Mafalda Lertxundi</i> .....	7
<b>Txakur txikia.</b> <i>Eneko Kaperotxipi</i> .....	9
<b>Sirena.</b> <i>Irene Sagarna</i> .....	9
<b>Eguzkia.</b> <i>Aratz Oliden</i> .....	11
<b>Min, min.</b> <i>Ane Ramos</i> .....	11
<b>Drakularen misterioa.</b> <i>Eneko Eizagirre</i> .....	13
<b>Pepita Magikoa.</b> <i>Ruth Saez</i> .....	15
<b>Maitea.</b> <i>Rut Atxega</i> .....	15
<b>Zerua urdina da.</b> <i>Goizane Baylin</i> .....	17
<b>Enekoren ametsa.</b> <i>Ander Carrera</i> .....	19
<b>Bi koloretako begiak zituen hartza.</b> <i>Sara Makazaga</i> .....	21
<b>Gaua eta eguna.</b> <i>Axel Unanue</i> .....	23
<b>Ispilua.</b> <i>Jokin Zubelzu</i> .....	25
<b>Patxi eta sorginkeria magikoa.</b> <i>Paula Argintxona</i> .....	25
<b>Serafin Fin-Fin eta Ternuko buelta.</b> <i>Axel Unanue</i> .....	29
<b>Bizitza.</b> <i>Izaro Houghton</i> .....	33
<b>Maite nazazu.</b> <i>Jaione Illarramendi</i> .....	33
<b>Bidaia Afrikara.</b> <i>Izaro Houghton</i> .....	35
<b>Ander piratekin.</b> <i>Unai Garate</i> .....	37
<b>Kometa hegalari.</b> <i>Irati Azkue</i> .....	41
<b>Ispilua.</b> <i>Malen Iturain</i> .....	41
<b>Liburu misteriotsu bat.</b> <i>Alba Carretero</i> .....	43
<b>Gaztelu misteriotsua.</b> <i>Alejandro Fernandez</i> .....	49
<b>Tomax.</b> <i>Eider Arruti</i> .....	53
<b>Petrolioaren zergatia?</b> <i>June Alkorta</i> .....	57
<b>Kirola.</b> <i>Ander Atorrasagasti</i> .....	61
<b>Kukuarri.</b> <i>Maria Etxeberria</i> .....	63
<b>Bizimodu berri bat.</b> <i>Ander Orbañanos</i> .....	65
<b>Bizitzaren oztopoak.</b> <i>Goiuri Unanue</i> .....	69
<b>Maddi.</b> <i>Ainhoa Illarramendi</i> .....	81
<b>Maite zaitut, horixe da dena.</b> <i>Andrea Zinkunegi</i> .....	83
<b>Apaizaren ametsa.</b> <i>Aurora Makazaga</i> .....	85
<b>Nire bizitzako zati ilunena.</b> <i>Judith Seguro</i> .....	89
<b>Susmoa.</b> <i>Ainhoa Goenaga</i> .....	93
<b>Stalingradoko heroia.</b> <i>Imanol Zinkunegi</i> .....	103

# Hitzaurrea

Kaixo, lagun.

Egunkaria eroatera joan eta hantxe aurkitzen zintudan urtero; beno, zintuztedan. Denak bata bestearen gainean txukun jarrita, zuetariko bat hartu gabe dendatik ateratzea ezinezko bihurtuz. Eguzkiak gure artean denbora gehien ematen zuen egunetan izan ohi zen hori, sanjoanen bueltan eta sanpedroak baino lehentxeago. Beti izan duzu herriko festak baino lehentxeago heltzearen abilezia hori, uda hasieraren adierazle izatera bihurtu zaitugun arte.

Etorri zaren aldiro herritar batek egin izan digu zure aurkezpena, zu ireki eta Hitzaurrea izeneko orrian ongi etorritxoa modu ezberdinetan emanaz. Hain zuzen ere, horretaz hitz egin nahi nizuke sekretupean bidaltzen dizudan gutuntxo honetan. Aurten zure aurkezpena egiteko ohorea eman didatela-eta mesede eske natorkizu: hitzaurrea bihurtuko ahal zenuke hitzatzea? Izan ere, nahiago nuke zu ireki eta irakurleak aurkituko duen lehen gauza nire idatzitxo hau izan beharrean, herriko gaztetxoren baten lanen bat jartzea. Zin egiten dizut hori eginez gero nire gelako apaletan lekurik onena izango duzula gustukoen ditudan aldizkari eta liburuen ondoan... benetan!

Aurten zurekin ekarriko dituzun marrazki, olerki eta ipuinen egileei zorionak eman nire partez, eta baita beste guztiei ere, munduan ez baita bata bestea baino hobea den ipuin, marrazki edo olerkirik. Denentzat lekurik ez dagoela-eta, zure gustukoenak aukeratu dituzu, baina ziur nago erabaki behar horretan burmuinari buelta mordoa eman dizkiozula, sarritan belarritatik kea ateratzeraino. Aukeraketa horiek egitea baino lan zailagorik ba ote?

Beno, ez naiz gehiago luzatuko, gure herrian dotore azaltzeko prestaketa lanekin nahikoa zeregin izango duzu-eta. Jarraitu urtero alai etortzen, eskola garaian makina buruhauste ematen zigun literatur lehiaketa ospetsuaren bisai edo jendaurrera azaltzeko orri sorta polita zaren horrek. Ondo bizi eta goraintziak etxekoei!

*Iñigo Gaiton*

# Pio, pio, ahateak


Pio, pio,  
ahateak janaria behar du.  
Ikasi behar du,  
Korrika ikasi behar du.  
Hegan egiten ikasi behar du...  
Ahate polita da.

*Anartz Agote San Sebastian*

# Udaberria

Kanta kantari  
txoriak,  
lore txikiak  
polit-politak,  
usain gozoa  
guretzat.

*Mafalda Lertxundi*



*Mirari Barrenetxea*

# Txakur txikia

Behin batean parkean geunden jolasten Eneko, Gorka, Amaia eta Mariluz.

Bat-batean, txakur bat azaldu zen zaunkaka. Txakurra txikia zen.

Taldeko bat, Mariluz, korrika joan zen etxera, beldurtu egin zelako txakurrarekin.

Txakurra Mariluzengana joan zen eta... tok-tok jo zuen atea:

—Txakurra naiz!

Eta Mariluzek atea ireki zion eta txakurrak jan egin zuen Mariluz.

Baina, txakurra txikia zenez, burua bakarrik jan zion eta beste guztia kanpoan geratu zitzaion.

Joan ginen denok Mariluzi laguntzera. Hanketatik tira eta atera egin genuen; baina burua barruan geratu zen.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan.

*Eneko Kaperotxipi Gozategi*


# Sirena

Behin, itsasoko errege eta erreginek ume bat izan zuten, neska bat. Egun batean, handitu zenean, paseatzera joan ziren itsas zabalera. Han izurdez mozorrotutako sorginak lore bat eman zion printzesari, baina lorea pozoituta zegoen eta printzesa lo geratu zen. Sorginak printzesa bahitu eta kartzelan sartu zuen.

Printzesa agertzen ez zenez, errege-erreginek aztiari galdetu zioten beren alaba non egon zitekeen. Aztiak bere bola magikoan ikusi zuen sorginak zuela bere kartzelan eta hara joan zen erregea. Erregeak eskatu zion sorginari bere alaba askatzeko; baina sorginak esan zion ez ziola emango kartzelako giltza. Erregea haserretu eta hiruhortzarekin hil zuen sorgin eta alaba kartzelatik atera zuen.

*Irene Sagarna*





*Elene Elizondo*

# Eguzkia


Eguzkia barrez,  
lorea irribarrez,  
erleak ezta eginez,  
kanta-kantari barrez,  
hartza ezta janez,  
erleak haserretu eta  
artzari ziztada eman  
eta hartza joan.

*Aratz Oliden*

# Min, min

Min, min,  
minez nago ni.  
Min, min,  
eta ez dakit zer egin.  
Min, min,  
minez hago hi,  
ñir-ñir eginez,  
izarrak esan dit berriz:  
Egin ezazu lo,  
bihar ez duzu edukiko min.  
Amets goxoak egin!

*Ane Ramos*



Mafalda Lertxundi

# Drakularen misterioa

Orain dela urte asko bazen gaztelu batean bizi zen Drakula bat. Gaztelura joaten ziren gizaki eta animalia guztiak jaten zituen. Oso maltzurra eta itsusia zen. Bera hilobian egoten zen, norbait etorri arte; gero, aurpegia ateratzen zuen eta denak ikaratzen zituen.

Egun batean txantxarra atera zitzaion eta dentistak esan zion letaginak kendu behar zizkiola. Drakulak esaten zion mesedez ez kentzeko letaginik eta dentistak, berriz, baietz. Hurrengo egunean joango zela esan zion Drakulak eta joan egin zen.

Baina Drakula enteratu zen hortzak garbituta txantxarra kentzen zela. Zepilloa eta pasta erosi zituen eta ondo-ondo garbitu zituen letaginak. Gero, hilobira joan zen, lo egitera. Esnatu zenean, dentistarengana joan eta dentistak esan zion txantxarrik ez zeukala.


—Oso ondo! —esan zuen Drakulak, eta dentistak galdetu zion:

—Zer egin duzu?

—Hortzak garbitu ditut —erantzun zion.

Eta handik aurrera poz-pezik eta txantxarrik gabe bizi izan zen Drakula.

*Eneko Eizagirre*



Lurdes Sarasua

# Pepita Magikoa

Behin batean, Pepita Magikoa izena zuen neskato bat zen. Bera oso magikoa eta zintzoa zen. Etxe txiki batean bizi zen, baso batean zegoen etxe txiki batean. Pepita oso trebea zen magia egiten eta denei gustatzen zitzairen Pepitak etxafuegoak egiten zituzten. Denek atsegin zuten. Beno... denek ez: bazen herrian pertsona bat, Pepita gustukoa ez zuena; baina horrek Pepitari bost axola.

Egun batean, herrian Musikaren Eguna antolatu zuten. Denak oso pozik zeuden eta berehala hasi ziren dena prestatzen. Herria musikaz bete zen eta Pepita dantzan aritu zen egun osoan. Hurrengo egunean, denak lotan geratu ziren, nekaturik zeudelako. Baina Pepita, hain gustura zegoen zer herriari sorpresa bat ematea pentsatu zuela.

Herri osoa instrumentuz bete zuen; hartaka, edozein momentutan, herrian jendeak musika jo ahal izango zuen.

Herritarrak esnatu zirenean, ezin zuten sinetsi ikusten zutena: herri osoak orkestra erraldoi bat zirudien. Beren herria benetan ederra zegoen!

Handik aurrera, jendea oso alai bizi izan zen.

*Ruth Saez*


# Maitea

Maitea, maitea,  
zurekin egon nahi dut  
gau eta egun.

Laztana, laztana,  
elkarrekin egingo dugu  
*pastel de manzana*.

Pitxurri-mitxurri,  
musukatu beti  
egon arte gorri-gorri.

*Rut Atxega*



*June Arruti*

# Zerua urdina da

Zerua urdina,  
urdina itsasoa,  
itsasoa hondartsua,  
hondarra marroia,  
marroia kolorea,  
kolore urdina,  
urdina zerua.

Zeruan dagoen txoria  
dago maitemindua,  
maiteminduak, enamoratuak,  
enamoratuak neska-mutilak,  
neska-mutil maitemindu guztiak  
dabiltza beti zeruari begira.

*Goizane Baylin*





*Libe Manzidor*

# Enekoren ametsa

Bazen behin ume bat, 8 urte zituen. Eneko izena zuen, oso imajinazio handia zeukan eta, ohera zihoanean, oso amets harrigarriak egiten zituen.

Egun batean, ohera zihoanean, gauza harrigarria amestu zuen:

Bera oso ondo bizi zen Erromako herri batean, baina erromatarrak herri hartara joan ziren eta denak bahitu zituzten. Eneko bahitu zuten eta bere familia osoa ere bai, eta esklabo gisa hartu zituzten. Esklabo jatorrak ziren, indartsuak eta azkarrak. Julio Zesarrek esan zuen Enekok eta bere familiak gerrako esklaboak izan behar zutela, eta hala izan zen. Enekok, gerran, denei agintzen zien. Julio Zesarrek bere jarrera ikusi zuen eta, nola armadako burua hil egin zen, Eneko izan zen aurrerantzean burua. Kartagokoak etorri ziren, Erromara mendeku hartzera. Oso armada handia zen eta Zesarri eraso jo zion Kartagoko armadak. Zesar hil egin zen, baina Erromak irabazi zuen eta Enekok hartu zuen Zesarren lekua.

Eneko esnatu egin zen eta esan zuen:

—Ni zer ari naiz hemen lotan? Gerra irabazi behar dut! —joan zen leihora eta ikusi zuen ez zegoela gerrarik. Pentsatzen jarri zen eta konturatu zen amets bat izan zela. Joan zen bere amaren bila eta amets zoragarri hori kontatu zion, eta beti pozik bizi izan ziren.

*Ander Carrera Garcia*



*Igor Romero*

# Bi koloretako begiak zituen hartza

Bazen behin, udako oporretan, pelutxezko hartz bat, Tito izena zuena. Hartzak 8 urte zituen eta marroia zen. Begietan bi botoi beltz zituen. Sudur gorria zuen, aho txikia, eskuak eta hankak motz eta lodiak. Bazeukan lagun bat, Untxitxo izena zuena.

Egun batean, hartzaren jabeak lorategira eraman zuen berarekin, jolasteko. Eta, hortik bi minutura, hartzari gauza ikaragarri bat gertatu zitzaion: begi bat galdu zitzaion belarretan. Baina bere jabea ez zen konturatu eta etxera eraman zuen hartza.

Hartza oso triste geratu zen, begi bat falta zitzaiolako. Bere lagun Untxitxok ikusi zuenean, galdetu zion:

—Zer gertatu zaizu?

—Begi bat lorategian galdu zait!

—Lasai, Tito! Nik eta nire soldaduek bilatuko dugu zure begia.

—Eskerrik asko, Untxitxo! Oso txintxoia zara.

Eta gauean untxia eta bere soldaduak begiaren bila hasi ziren. Ipotx bat azaldu zen eta galdetu zien:

—Zeren bila ari zarete?

—Botoi beltz baten bila; hartzaren begia da.

—A! Gaur eguerdian hartu dut.

—Zergatik?

—Maitagarriari bere zapatako botoi bat galdu zaio eta esan dit bat bilatzeko, eta zuen lorategian aurkitutako botoiak balio zuen.

—Eta zer egingo dugu orain?

—Nik badakit: etxean bilatuko dugu horrelako botoi bat.

—Bale!

Etxera joan ziren eta armairuetan begiratzen hasi ziren; baina ez zuten botoirik aurkitu. Untxitxok esan zuen:

—Gure jabearen zapatetan begiratuko dugu. Han baten bat aurkituko dugu.

—Bale!

Eta jabearen zapatetan begiratzen hasi ziren eta Untxitxok botoi zuri bat aurkitu zuen. Deitu zion ipotxari eta ipotxak esan zion:

—Zer gertatzen zaizu?

—Botoi bat bilatu dut, baina txuria da.

—Berdin du. Oraintxe josiko diot.

Tito oso pozik jarri zen. Hurrengo egunean, neskak zapatak jantzi behar zituen eta botoi bat falta zela konturatu zen. Hartzari begiratu zionean, ikusi zuen bere botoia zeukala josita begiaren tokian. Orduan, pentsatu zuen maitagarriak esistitu egiten direla eta oso pozik jarri zen.

Eta, hortik aurrera, hartzari zerbait gertatzen zitzaionean, Untxitxori esaten zion eta Untxitxok lagundu egiten zion. Oso lagunak ziren eta oso zoriontsu bizi izan ziren.

*Sara Makazaga Priede*

# Gaua eta eguna


Gaua beltza,  
eguna argia,  
biek ematen didate  
niri bizia.

Gaua,  
ilargi borobil zuria  
ari zait niri begira.  
Izarra urrundik  
dir-dir ari da.  
Hontzak Uu! Uu!  
otsoak Auu! Auu!  
Ni goxo-goxo,  
zurrunka.

Eguna!  
Eguzki erraldoiak  
besoak ireki ditu.  
Esnatu da, ze poza!  
Oilarra zuhaitzetik  
Kukurrukuuu!  
Txoriek adarretik adarrera  
txio-txioka.  
Tirriiiiiin! Tirriiiiiin!  
Kafesne usaina.  
Ni nagiak ateratzen.  
Egun berria, erleen ezia.  
Zurrut, jan... ikastola ala jai?

Gaua beltza,  
eguna argia,  
biek ematen didate  
niri bizia.

*Axel Unanue Arrondo*



*Ruth Saez*

# Ispilua

Gaur ispiluan begiratu naiz  
eta ia puskatu egin da;  
agian, oso itsusia naizelako.  
Berriro begiratu naiz  
eta orain mila ispilu dauzkat  
gaur konturatu naizelako  
mila aurpegi dauzkadala.

*Jokin Zubelzu Uranga*

## Patxi eta sorginkeria magikoa

Patxi herri txiki batean bizi zen bere amonarekin. Bera oso pozik zegoen, baina gus-tatuko litzaioke bere aitarekin eta bere amarekin bizitzea. Orain dela bi urte, bere gura-soak joan ziren urrutira, lan egitera. Bere aitak txalupa txiki bat zeukan eta arrantzalea zen. Egunero goiz joaten zen arrantza egitera; gero, amak azokan saltzen zituen aitak harrapatutako arrainak. Baina, bat-batean, arrainak desagertu egin ziren itsasotik eta, horregatik, gurasoek joan egin behar izan zuten, bizimodua aurrera ateratzeko.

Gurasoak joan zirenean, Patxi txikia zen; baina orain hamar urte dauzka eta gai da gauzak ulertzeko. Amonari galdetu zion ea zer gertatu zen herrian, gurasoak joateko, eta amonak istorio hau kontatu zion:

—Gure herrian betidanik bizi izan zen sorgin bat. Oso ona zen sorgin hura, beti prest herritarrei laguntzeko. Gaixoak zaintzen zituen eta botikak doan ematen zizkien. Baina, duela hiru urte, pertsona gaizto batek sorginaren etxea erre zuen. Sorginak haserre handia hartu zuen eta sorginkeria bat bota zion herriari: inoiz ezin izango zutela gehiago arrantzarik egin herrian.

Patxi harrিতuta geratu zen istorio horrekin eta galdetu zion amonari ea sorginkeria hori konpon zitekeen. Amona bere gelara joan zen eta kutxa txiki bat ekarri zion, esanez:

—Kutxa hau sorginaren etxetik hartu nuen etxea erre aurretik. Nire ustez, barruan zerbait dauka eta baliagarria izan daiteke sorginkeria hausteko.

Patxik kutxa hartu zuen eta bere gelara eraman zuen. Han, ireki egin zuen eta barruan mapa bat zegoen; mapan herria eta bere inguruko basoak agertzen ziren eta, maparen azpian, pista batzuk zeuden:





*Ander Carrera*

- 1.- Sorginkeria hausteko, zure inguruan daukazun leku batera abiatu behar duzu.
- 2.- Leku horretan kobazulo bat aurkituko duzu.
- 3.- Kobazuloan erantzuna aurkituko duzu.

Hurrengo egunean, Patxik bere lagun minarekin hitz egin zuen, Ainhoarekin, eta istorio osoa kontatu zion. Biok erabaki zuten kobazulora joatea. Joan ziren Patxiren etxera eta motxilak prestatu zituzten janariarekin eta linterna batzuk ere hartu zituzten, badaezpada.

Basora abiatu ziren eta gurutzatu egin behar izan zuten, beste aldean zegoelako kobazuloa. Hiru ordu eman zituzten basoa gurutzatzeko eta, azkenean, kobazulora iritsi ziren. Hirugarren pistari jarraituz, kobazuloaren sarrera aztertu zuten eta han zerbait idatzita zegoela ikusi zuten: *Barruan harrizko ate bat bilatu!*

Sartu ziren barruan eta linternak piztuta hasi ziren ibiltzen. Oso luzea zen eta ordu eta erdi pasa zuten, bukaerara iristeko. Han zegoen atea; baina itxita zegoen eta zekiten nola ireki.


Pentsatu zuten hor nonbait pista bat egon behar zuela, atea irekitzeko, eta bueltaka hasi ziren. Azkenean, beste kutxa bat aurkitu zuten; ireki eta, barruan, papertxo bat zegoen, idatzita: *Harritzko atea irekitzeko, eskua atearen erdian jarri behar duzu; baina kontuan izan atea bihotz onekoei bakarrik irekiko zaiela.*

Patxi eta Ainhoa bihotz onekoak ziren. Patxik jarri zuen eskua atean eta poliki-poliki ireki zen. Barrura sartu eta kutxa handi bat zegoen. Ireki zuten eta gutun bat eta zaku bat, hautsez betea, zeuden. Gutuna sorginarena zen eta esaten zuen herrira eraman behar zutela zakua eta itsasora bota, sorginkeria hausteko.

Horrela egin zuten: zakua sorbaldan hartu eta herrira abiatu ziren. Heltzerakoan, hautsa itsasora bota zuten eta, bat-batean, arrainak hasi ziren agertzen. Patxi eta Ainhoa oso pozik zeuden: herriko bizitza lehen bezala izango zen.

Eta, hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila hango herrixkan.

***Paula Argintxona Dobarro***



Ane Colado

# Serafin Fin-Fin eta Ternuko buelta

Orain kontatzera noan istorio hau duela mila urte inguru gertatutakoa da. Gutxi gorabehera, gure birraitonen birraitonen aitonen garaikoa.

Garai hartan ez zegoen trenik, autorik, telebistarik, argi indarririk... Jendea zaldi gainean ibiltzen zen eta karroak edota gurdiak erabiltzen zituen.

Hau Serafin Fin-Fin izeneko mutil gazte bati gertatutako istorioa da. Baina nor zen gure Serafin Fin-Fin hau?

Serafin Orion bizi zen, Kantauri itsasoan zegoen eta dagoen herrixka batean: Orion. Orio herri arrantzalea zen, txikia eta polita. Balea harrapatzen zuten eta soberakinak saldu egiten zituzten, beste gauzak erosteko. Ibaiaren ertzean itsasontzi mordoxka bat pilatzen zen. Oso jende alai bizi zen. Bertan, arrain eta itsaso usaina nahasten ziren. Eliza handi-handi bat zuten, harkaitzetan egina.

Serafin Fin-Finek ilea gorria zeukan, odola bezalaxe. Azala argi-argia zuen, ardiaren ilea bezain zuria, Pagoeta mendiko elurraren antzekoa. Begiak, berriz, berde-berdeak, Mendibeltzeko belardienak baino argiagoak, jakina. Sudurra ia-ia zuhaitza mozteko adina zorrotza zuen eta ahoa, berriz, elefanteena adinakoa, handi-handia.

Mutil azkarra zen, indartsua. Jakin-min handikoa eta ausarta. Orduak pasatzen zituen arrantzan Oria ibaian bere aitonaren batelarekin. Altxerri ingurutik kanaberak ekartzen zituen eta aingirak, lupiak... harrapatzen zituen. Batzuetan korrokoiak ere bai, eta horiek Mixi katuarentzat gordetzen zituen.

Egun batzuetan Kukuarrira igotzen zen eta han orduak pasatzen zituen itsasoari begira.

Egun batean, bere aitona bezala, arrantzalea izan nahi zuen.

Serafin Fin-Fin izena bere aitona jarri zion. Egunen batean oso urrutira iritsiko zara esaten zion. Aitona bikingoen istorioak kontatzen zituen. Serafinek oso gustura entzuten zituen aitona Manuelen kontuak:

—Gogoan dut egun hura. Zure aitak *Balea!* oihukatu zuen egun hura, Talaimenditik balearen ur zorrotada ikusi zuenean. Txalupetan atera ginen txanpan, ea nor lehenago iritsi, eta balea arnasa hartzera atera zenean, bi eskuekin arpoia hartu eta zast! bota nion bizkarrezurrera. Hura zen animalia...

Aitona Manuel hil egin zen eta garai hartan herria oso triste zegoen. Neguan baleak ez ziren etortzen eta ez zeukaten haragirik jateko, eta ezta oliorik ere, argia eta xaboia egiteko, ez larrurik, botak eta uhalak egiteko, eta ezta bizarrik ere, eskuilak egiteko. Nola lortu dirua, behar zutena erosteko?

—Nik badakit nola alaitu herria —esan zion Serafinek aita Lontxori.

—Horrela bada, egin ezazu zerbait; horrela ezin dugu segi —erantzun zion Lontxok.

Serafinek oso ondo gogoratzen zituen aitonak bikingoei buruz kontatutakoak: arrantza egiteko erak, itsasontziak nola egiten zituzten, balea bila nora joaten ziren... Eta, herriaren laguntzaz, itsasontzi handi bat egin zuten Aginagan.

Baina aiarrek ez zuten oliorik eta oriotarrena joan ziren, esanez:

—Guk ere ez dugu oliorik argi egiteko eta, gainera, uzten badiguzue zuekin joaten, pagoa eramango dugu, itsasontzia egiteko.

Itsasontziari San Nikolas izena jarri zioten eta Lontxo, Serafinen aita, jarri zuten patroï. Hiru mastako belaontzi bat zen, oso polita, bide luzeak egiteko prestatutakoa. Ontziaren egurrak distira izugarria zuen. Bedeinkazio egunean kristoren festa egin zuten eta bertan elkartu ziren Aginaga, Aia eta Orioko jendea.

Hurrengo egunean, bibereak hartuta eta senideei agur egin ondoren, bikingoen lurraldeetara abiatu ziren. Bidean arrain asko ikusi zituzten, eta erdiak ezezagunak ziztaizkien. Aitonak esanda bezala, Islandia pasata, baleei jarraituz, lurralde berri batzuetara iritsi ziren. Bi hilabete pasa zituzten eta oso gogorra izan zen: olatu erraldoiak, haize bortitzak, tximistak, urakanak...

Lurralde berriak Ternua izena zuen. Hotz handia egiten zuen. Ailegatu zirenean, belaontzia ia-ia dena puskatua zegoen. Han pertsona batzuekin egin zuten topo; haiek hizkuntza arraro baten hitz egiten zuten: innuak ziren. Hasieran, innuek pentsatu zuten konkistatzera joan zirela, baina Lontxok esan zuen:

—Gu euskaldunak gara eta gure herria urruti dago. Gure baleak agortu egin dira eta hona etorri gara arrantzara, herria pobrezian eta oso triste dagoelako.

Orduan, innu batek, Alkatxik, esan zuen:

—Oso toki egokira etorri zarete eta hain bidaia luzea egin ondoren, lagundu egingo dizuegu baleak harrapatzen.

Baleak harrapatzeko modu berri bat erakutsi zieten. Balea gutxi harrapatzen eta ugari zegoen bakailaoa arrantzatzen erakutsi zieten. Orduan, konturatu ziren oriotarrak zergatik desagertu zen balea Bizkaiko golkotik.

Lagun handiak egin ziren innuak eta oriotarrak, eta izugarrizko afariak egiten zituzten elkarrekin. Etxetik eramandako gazta, intxaurrak, sagardoa eta abar ez ziren falta.

Serafin Fin-Fin eta bere taldea beren herrira itzuli zirenean, izugarrizko ongietorria prestatu zuten herritarrek, trikitixa eta guzti. Gehiago ez zen faltako herrian oliorik argia egiteko, hezurak tresnak egiteko, haragia jateko, bizarrak eskuilak egiteko, larrua

zapatak eta jantziak egiteko... Nola garai hartan izozkailurik ez zegoen, bakailaoa lehortu eta gazitzen ikasi zuten, innuei esker.

Itsasontzi gehiago egin zituzten eta Ternutik ekarritako balea eta bakailaoa zaldiz eta gurdiz beste lekuetara eramaten eta saltzen hasi ziren, dirua lortzeko. Handik aurrera, oso pozik bizi izan ziren oriotarrak eta ingurukoak.

Serafin Fin-Fin oso famatua egin zen ideiarengatik eta urrutira iritsi zen. Esaten dutenez, Xixario aurrean dagoen hezurra Lontxok ikusitako balearena da eta bertan dagoen arpoia aitona Manuelek azken baleari sartutakoa.

Gertatua jarri dut herriaren alde. Gora Serafin eta oriotarrak esan beldur gabe.

*Axel Unanue Arrondo*



# Bizitza

Lehoiak zebra behar du  
janaria lortu eta  
bizitzeko.

Arrantzaleak arraina behar du  
dirua lortu eta  
bizitzeko.

Nik zu behar zaitut  
bihotza poztu eta  
bizitzeko.

*Izaro Houghton Maiz*

# Maite nazazu

Maite nazazu naizena,  
batzuetan lagunkoi,  
besteetan iheskor;  
batzuetan alai,  
besteetan hotz.

Maite behar banauzu,  
naizen bezalako maite nazazu.

Eta ni ez banaiz zuk nahi bezalakoxea,  
beste norbait da  
zuk maite duzuna.

*Jaione Illarramendi*





Nora Piologo

# Bidaia Afrikara

Kaixo! Ni Beñat Etxeberria naiz eta 12 urte ditut. Orion bizi naiz eta nire lagunik hoberena Mohamed da.

Zergatik esan dizuedan nire lagunik hoberenaren izena? Ba, istorio honek kontatzen duelako nola ezagutu nuen.

Beno, Mohamed 9 urterekin ezagutu nuen, eta, besterik gabe, istorioa kontatzen hasiko naiz.

Goiz batean posta iritsi zen eta ni, beti bezala, jasotzera joan nintzen:

—Ama! Ama! Karkara iritsi da! —esan nion amari.

—Ea, ba, zer berri etortzen den —esan zuen amak, eta Karkara irakurtzen hasi zen.

—Hara, begira! Hemen jartzen du Orion jostailuak jasotzen dituztela Afrikako herri batzuetara bidaltzeko eta gaur arratsaldeko 19:30ean bukatzen dela epea.

—Ba, goazen prestatzera! —esan nuen nik.

Hartu genituen jostailu batzuk eta kirol portura abiatu ginen. Han zaku handi batzuk zeuden jostailuz beteta, eta ni handiengan sartu nintzen. Han *Game Boy* bat ikusi nuen; nik ez nuen inoiz horrelako makinarik eduki eta jolasten hasi nintzen. Ez dakit ziur zenbat denbora egon nintzen; baina, joko guztia pasa nuenean, kanpora irten nintzen eta Paxi arrantzalearen itsasontzian agertu nintzen. Ordularia etxean utzi nuenez, ez nekien zer ordu zen, baina ilunabarra zela ziur nengoen.

Orduan, Patxi ikusi nuen:

—Patxi! Patxi! Beñat naiz. Non nago?

—Beñat, zertan ari zara hemen?

—Ba, egia esan, ez dakit.

Eta pasa zitzaidana kontatu nion.

—Beno, Beñat, gauza bat esan behar dizut: ezin izango duzula etxera bueltatu; baina, ezer baino lehen, zure gurasoei deituko diet, oso urduri egongo dira-eta.

Mobila hartu eta deitzen hasi zen. Ni, berriz, paisaia ikusten gelditu nintzen. Nora ote nindoan? Noiz ikusiko ote nituen, oster, aita eta ama?

Nire buruari horrelako galderak egiten nizkion, azkenean, Patxik telefonoa eseki zuenean. Gurasoak lehenbailehen etorriko zirela esan zidan eta horrek asko lasaitu ninduen.

Kostaldera iristen ari ginen eta ni erabat urduri nengoen. Iritsi ginen eta han bost gizon zeuden, bakoitza gamelu batekin. Orduan, jostailuak gamelu gainean jarri zituzten eta ni, bitartean, gamelukume batekin jolasean aritu nintzen eta, gero, bere gainean ibiltzen utzi zidaten.

Herri txiki batera iritsi ginen eta han ume batzuk ikusi nituen jolasean. Gameluak utzi zizkigun gizon batek umeei deitu eta bakoitzari jostailu bana eman zien. Orduan, mutiko bat ikusi nuen nik erabili nuen *Game Boy*-a eskuetan zuela. Gutxi gorabehera, nire adina izango zuen eta hurbildu egin nintzen. Mohamed izena zuen; konturatu nintzen ez zekiela nola jolastu eta, pixkanaka, irakasten hasi nintzen. Handik pixka ba-tera, guztiak ibili nahi zuten eta, txandaka, ibiltzen hasi ziren.

Hurrengo egunean, Patxik galdetu zidan ea berarekin joan nahi nuen, opariak banatzera; baina nik esan nion nahiago nuela herri hartan geratu. Orduan, hango bi-zitza egiten hasi nintzen: eskolara joaten nintzen eta, gero, libre egoten nintzen, jostailuekin eta lagunekin jolasten aritzeko.

Horrela, astebete pasa nuen eta, egun batean, gurasoak etorri ziren:

—Ama! Aita!

—Beñat! Azkenean, aurkitu zaitugu!

—Barkatu, ama! barkatu, aita! Ez naiz berriz aldenduko zuei esan gabe —esan nuen nik.

—Baina, hemen gaudela, zergatik ez dugu oporralditxo bat pasatzen bertan? —esan zuen aitak.

—Ongi da! —erantzun zion amak.

—Aita! Ama! Etorri hona! Lagun bat aurkeztuko dizuet. Hau Mohamed da. Mohamed, hau Mikel da, nire aita, eta hau Marisa, nire ama.

Mohamedek irribarre egin zuen eta eskua luzatu zien.

Astebete gehiago geratu ginenez, etxe bat utzi ziguten. Oso ondo pasa genuen; baina, azkenean, iritsi zen itzultzeko eguna eta Mohamed agurtu egin nuen. Esan nion nire argazkiak eta eskutitzak bidaliko nizkiola. Orduan, Patxi eta besteak iritsi ziren eta opari bat sobratu zela esan zidaten. Bi panpin ziren, bi ume, elkarri eskuak lotuta zituztenak. Orduan, guraizeak hartu, hariak moztu eta panpin bat Mohamedi eman nion eta elkar agurtu genuen.

Arrantzaleen itsasontzian itzuli ginen etxera. Ni pixka bat triste nengoen; baina banekien hurrengo udan berriz joango nintzela.

Baina ez zaku batean sartuta!

*Izaro Houghton Maiz*

# Ander piratekin

Ander izeneko mutiko bat bere logelan zegoen, ohean etzanda lasai asko, piraten liburu bat irakurtzen. Oso gustuko zuen abenturazko liburuak irakurtzea. Ikastolatik irteteen, ia beti liburutegira joaten zen eta, gauetan ere, askotan, abenturak irakurtzen ari zela hartzen zuen loak.

Egun hartan, piraten liburu bat irakurtzen ari zen. Bat-batean, bere burua piraten ontzian zegoela sentitu zuen:

—Hi zein haiz eta zertara etorri haiz hona? —galdetu zion pirata bizardun batek.

Eta, hitzik esaten utzi gabe, sotoan giltzapetu zuen. Ilunabarrean, kapitaina hurbildu zen Anderrengana.

—Zergatik igo haiz ontzi honetara?

—Nik pirata izan nahi dut, besterik ez.

Hori entzun zuenean, Kolh kapitainak arropa berriak eman zizkion Anderri: buruko zapi bat, marradun kamiseta bat, galtza zabalak eta belarritako bat.

—Kaitik irten bezain laster, maparen bila abiatuko gaituk —esan zion Kohlek.

Handik sei bat ordutara, zera entzun zen ontzian:

—Bikingoak! Bikingoak!

Ziztu bizian denak beren tokietan kokatu ziren. Bi ontziak parez pare aurkitu zirenean:

—Baina zenbat kanoi dauzkate ontzi horretan? —oihukatu zuen Kohlek—. Hau erokeria da!


—Hi, Kohl! Kakati hutsa haiz, altxorra guretzat izango duk! —esan zion bikingo tripa handi batek.

—Kapitaina, txikitu egingo gaituzte! —esan zuen pirata beltzaran batek.

Kohl kapitaina saiatu zen bikingoak entretenitzen, zeren Anderrek keinu batez adierazi zion etsaien ontzira egingo zuela jauzi. Inor ohartu gabe, bikingoen kapitainaren gelan sartu zen:

—Hemen ez, hemen ere ez, hor ez...

Bat-batean, kutxa bat ikusi zuen. Eskuetan hartu eta ospa egin zuen harrapatua izan baino lehen. Bere ontzira iritsi zenean, Kohlek hauxe esan zien bikingoei:



Nahia Agudo

—Laster izango dituzue gure berriak!

Bi ontziak urrutiratu zirenean, Anderrek kutxa ireki eta... mapa bat agertu zen. Ontziko pirata guztiak oihuka hasi ziren, eta kapitainak zera esan zuen:

—Oraintxe bertan bidaliko diet mezu bat bikingoei: Zuek kanoi gehiago izango dituzue, baina gu ausartagoak eta burutsuagoak gaituk.

—Hau ospatu beharra zagok! —esan zuen Imanol izeneko piratak—. Hi, Ander, joan hadi sоторa eta ekar itzak whisky botilak.

—Ez zaitzete mozkortu, laster aterako gara-eta uharterantz —esan zuen Kohlek.

Hurrengo eguneko egunsentirako iritsi ziren uhartera. Hondartzan zegoen harriztarretik palmondo aldera hamar pauso zuzen eman behar ziren eta, ondoren, lau pauso ezkerretara. Mapan begiratu eta sua marraztuta agertzen zen:

—Sumendia esan nahi du horrek! Aurrean dagoen mendi hori sumendia da! —esan zuen Anderrek.

Harako bidean jarri ziren. Sumendiaren magaletik tontorreraino txanponak zeuden. Haiek markatzen zuten bideari jarraitu zioten. Sumendiaren ahotik behera begiratu eta, txoko batean, X letra ikusi zuten:

—Ematen du hor dagoela altxorra, baina norbaitek jaitsi beharko du hor behera —esan zuen kapitainak.

Anderrek segituan eskaini zuen bere burua, jaisteko:

—Pisu gutxiena nik dut eta neu jaitziko naiz.

Sokaz gerria lotu eta, pala bat eskuetan zuela, sumendi barruan sartu zen. Toki markatua zulatzen hasi zen. Denbora asko pasa zuen; baina, azkenean, zerbait gogorra ukitu zuen palaz. Eskua sartu eta... altxorra zen!

—Igo hadi, azkar! —esan zion kapitainak Anderri—. Sumendia esnatzen ari duk-eta.

Korrika ari zirela...

—Baina, Ander, izerditan blai zaude! —esan zion amak—. Zure ahotsa entzuten nuen gelatik eta kezkatu egin naiz.

—Ametsetan ariko nintzen, ama!

Ama gelatik irten zenean, Anderrek gelako leiho ondoan urrezko txanpon batzuk ikusi zituen. Burko azpian gorde eta, berehala, loak hartu zuen.

*Unai Garate Labaka*



*Oihana Aramendi*

# Kometa hegalari

Kometa zeruan,  
ni jolasean,  
askatu egin da  
bat-batean.

Korrika joan naiz  
harrapatu nahian,  
baina galdu egin da  
hodeien artean.

*Irati Azkue Zaldua*

# Ispilua

Itsasoa ispilua da.  
Gauetz  
mundua bi zatitan  
erdibitzen du.  
Bi ilargi daude:  
bata zeruan  
eta bestea uretan

*Malen Iturain Garcia*





*Paula Argintxona*

# Liburu misteriotsu bat

—Ez da bidezkoa! —esan zion Billek Lucy arrebari, amorratuta.

Lucyk Billen musika aparatua berriro ere baimenik gabe hartu zuela-eta, eztabaida izan zuten beren artean. Hori ez zen noizbehinka gertatzen; ia egunero haserretzen ziren edozer gauzogatik. Baina, kasu honetan, Bill beste inoiz baino okerrago sentitzen zen: minduta, haserretuta, amorratuta... dena batera. Lucyrekin arazo hau konpondu nahi zuen, baina ez zekien nola. Ohe gainean bota, eta negar batean hasi zen. Billen gurasoak nazkatuta zeuden beti arazo berdinak konpontzen eta erabaki zuten handik aurrera kasurik ez egitea, anai-arreben arteko iskanbilak beraiek konpondu behar zituztela. Horregatik, holako eztabaidetan ez zieten kasurik egiten.

Bat-batean, Bill lokartu egin zen, baina Lucyk atera zuen zaratak esnatu egin zuen.

—Zertan ari zara Lucy? —galdetu zion Billek.

—Zuk zer uste duzu? Zure margoak behar ditut. Beno, orain, nireak dira. Agur.

—Bai zera! Margo horiek nireak dira! Nire diruarekin erosi nituen atzo! Oraindik ez ditut erabili ere egin!

Baina Billek hori esan zuenerako, Lucyk atea bere muturren aurrean itxi zuen. Billek negarrez hasteko gogoaz zuen, baina bazekien horrekin ez zuela ezer lortuko. Handik pixka batera lasaitu zen eta bere gelako apaletan zeuden liburuak begiratzen hasi zen: Edurne Zuri, Txanogorritxu, Harry Potter laugarrena eta...

—Zer da hau? —esan zuen Billek.

Liburua esku artean hartu zuen. Tapa beltza zuen eta ez zuen izenbururik. Liburuaren atzeko partean zerbait jartzen zuela konturatu zen: IREKI NAZAZU. Billek kasu egin zuen. Orrialdearen goialdean AURKIBIDEA jartzen zuen, baina... Bill harrituta geratu zen, aurkibidearen azpian ez zuelako ezer jartzen, eta beste orrialde guztietan ere ez.

—Sinestezina da! Ez dut inoiz horrelako libururik irakurri!

Bat-batean, gauza harrigarri bat gertatu zen. Liburuko aurreneko orrialdean letra batzuk azaldu ziren. Ia bihotzekoak eman zion. Joan zaitez hurrengo orrira zioen esaldiak. Billek, berriro ere kasu egin zion liburuari. Hurrengo orrian hauxe jartzen zuen:

*Zure egoeraz ohartu naiz, horregatik nik esaten dizkizudan pausu guztiak banan-banan betetzen badituzu, magia eskuratzeko aukera emango dizut. Horrela, zure arrebarekin nahi duzun guztia egin ahal izango duzu.*

—Hau aukera ederra da niretzat! —esan zuen Billek, emozionatuta—. Ez zen nire

asmoa Lucy sorgintzea eta gutxiago min egitea, baina, egia esan, merezi du —jarraitu zuen ahopeka esaten.

Orduantxe, amak deitu zion, afaria prest zegoela esateko.

Afaldu ondoren, Billek erabaki zuen hurrengo goizean hasiko zela aurreneko pausarekin.

*Bzzzzz!* Egin zuen Billen iratzargailuak; kolpea emanaz itzali zuen.

—Gaur larunbata da! Zer ondo! Zergatik jarriko ote nuen iratzargailua hain goiz?... A bai! Egia da! —esan zuen Billek oraindik ahozabalka.

Liburutegira joan, liburu harrigarri hura hartu, zabaldu, eta berriro ere letra batzuk azaltzen hasi ziren. Oraingoan Bill ez zen harritu eta irakurtzen hasi zen:

*Joan 56. orrira. Han bete beharreko 1. pausoa dago. Zeuk bete beharreko arau batzuk ere badaude, adibidez, egunero froga bat egin behar duzu. Hau ez baduzu betetzen zigortua izango zara eta magia galduko duzu.*

—Ongi da, ongi da! Saiatuko naiz! —esan zuen Billek—. Goazen ba 56. orrira!

Orriak pasa eta pasa ibili zen; azkenean, aurkitu zuen 56. orria eta irakurri zuen:

*Zure aurreneko pausua: saguzar pixez eta Madrileko euriaren eginiko zopa horia egin beharko duzu.*

—Zeeer? Baina, hori ezinezkoa da! Nola lortuko dut saguzar pixa egun batean? Madrileko euria, hala nola, ni Madrilen bizi naiz eta, baina saguzar pixa? Hiri inguruan ez dago kobazulorik eta, bestela ere, nola joango naiz? Eta nola lortuko dut euri ura eguzki zoragarri honekin?

—Bill! Jaitsi oraintxe bertan! Gosaltzeko ordua da, ipurtandi!

Ez zegoen dudarik: Lucy zen. Billek ez zuen goserik, baina eskaileretan behera jaitsi zen pauso makal eta pisutsuarekin. Gosaltzen zegoela, telefonoak jo zuen.

—Bill! Hartu ezazu telefonoa!

—Hartu zeuk, Lucy! Ederra kopeta! —esan zuen Billek nahiko haserre.

—Ongi da, ipurtandi!

—Nor da? —esan zuen Lucyk, telefonoa eskuan zuela.

—Eric naiz, Billen laguna. Hor al da?

—Bai, oraintxe jarriko da, baina itxaron egin beharko duzu: ipurdi handia du eta altxatzea kostatzen zaio. Momentu bat.

Lucyk telefonoa mahai gainenean utzi eta anaiari deitu zion:

—Aizu! Zure laguntxo maitagarria telefonoan da! Altxa ipurdi hori eta etor zaitez hona! Kar, kar, kar! —barre maltzurra atera zitzaion Lucyri.

—Emadazu telefonoa eta isildu zaitez! —esan zuen Billek. amorratuta.

—Bai? Nor da?

—Eric naiz. Badakizu nire aita zientzialaria dela, ezta?

—Bai, noski.

—Ba, gaur arratsaldean Madrileko Pemi kobazulora joan beharra dauka eta ni berekin joango naiz. Nahi al duzu nirekin etorri?

Alde batetik besterainoko irribarrea jarri zitzaion aurpegian. Ederra zortea! Horrela saguzar pixa lortzeko aukera izango dut pentsatu zuen pozik Billek.

—Nola ez! Saguzarren bat harrapatzeko aukera ere izango dugu, ezta? Gogo handia izan dut beti!

—Ba... saiatuko gara!

—Beno eta zer ordutan?

—Ba, eguerdiko hirurak aldera pasako naiz zure etxetik. Goiz joango gara, gero han jolasteko denbora edukitzeko. Ongi?

—Bai noski! Gero arte!

—Agur.

Bazkaltzeko orduan Billek kobazulora joateko baimena eskatu zion amari. Ondo iruditu zitzaion eta, denboraz ibiltzeko, segituan bazkaltzen hasi ziren. Lucyri ez zitzaion ondo iruditu, bere anaiak egiten zuen guztia gaizki iruditzen zitzaion-eta. Bazkaldu ondoren, Billek arropa egokia jantzi zuen, kobazuloan eroso egoteko. Aldatu bezain pronto, ateko txirrina entzun zen: ding-dong, ding-dong!

—Banoa! Agur ama! —Billek bazekien Eric zela.

—Ondo pasa! Ondo portatu! Egin Eric-en aitak esaten duen guztia! —aholkatu zion amak.

—Baaai. Agur! Gero arte!

Bill segituan atera zen etxetik. Bere laguna eta aita agurtu eta autoan sartu zen.

Kobazulora iritsi bezain pronto, saguzarrak harrapatzen hasi ziren, baina ezin. Halako batean... zapla! Saguzar bat sarean harrapatuta geratu zen. Bi lagunak oso pozik jarri ziren, nahiz eta Ericek zertarako behar zuen ez jakin. Saguzarrak pixa egitea besterik ez zitzaion falta. Poltsikoan zuen potetxoa hartu eta saguzarraren azpian jarri zuen.

Saguzarrak badaezpadako pixa txorrotada bota zuen. Bill harrituta geratu zen. Ez zuen inoiz pentsatu saguzarrek hainbeste pixa egiten zutenik!

—Aiba, zortziak dira eta! Joango al gara etxera?

—Ongi da! – erantzun zuen Billek.

Kobazulotik atera zirenean, euria egiten zuen. Zer ondo! pentsatu zuen Billek. Poltsikotik pote handi bat atera zuen eta euri urarekin bete.

—Gaur zortea eskuetan dut! —atera zitzaion nahi gabe.

—Zer? —esan zuen Erikek zerbait entzun zuelakoan.

—Ezer ere ez.

Billek disimuluz bi potoak, handia eta txikia, poltsiko banatan sartu zituen eta autoan sartu zen.

—Ondo pasatu al duzue? —galdetu zien Ericen aitak.

—Ederki! Eskerrik asko ekartzeagatik! —eskertu zuen Billek.

Etxera sartu zenean, ama agurtu eta bere gelara joan zen abiadura bizian. Zopa egin beharra zuen! Osagaiak prest zituen; baina, oraindik, nahasketa egitea falta zitzaion! Gelan prest zuen ontzi handi batean nahasketa egiten hasi zen.

—Saguzar pixa pixka bat, Madrileko euri pittin bat gehiago... —zioen Billek marmarrear—. Listo! Prest dago! Eta orain, zer?

Liburuaren bila joan zen, liburua ireki eta irakurtzen hasi zen:

*Hau irakurtzen ari bazara, aurreneko proba pasa duzulako da. Orain, bigarren eta azkene-ko proba pasa beharko duzu. Antartikara joan beharko duzu eta foka bati letagin bat kendu. Horretarako, laguntza emango dizut Antartikara egun batean eta bakarrik joatea zaila delako. Antartikako fokei buruzko dokumental bat duzu hamaiketan. Bihar hasi behar duzu froga eta biharko eguna bakarrik daukazu froga gainditzeko. Bestela, badakizu... A! eta Antartikatik bueltatzeko 'ur baso bat' esatea besterik ez duzu behar.*

—Ongi da, ba! Bihar hamaikak baino lehen jarriko dut iratzargailua; horrela denbo-  
rarekin ibiliko naiz.

Afaltzera jaitsi zen eta, ondoren, oheratu egin zen hurrengo egunerako indarrak har-  
tzeko. Bat-batean, norbaitek Billen gelako ate jo zuen: tok, tok! Nor ote da? galdetu  
zion bere buruari.

—Neu naiz! —esan zuen Lucyren ahotsak atearen beste aldetik.

—Zer nahi duzu?

—Gauza bat esatera nator. Zure iratzargailua behar nuen eta afaltzen ari zinen bitartean hartu dizut. Baina...

—Puskatu egin duzu, ezta?

—Nola asmatu duzu? Beno, orain badakizu. Agur!

Billek ez zuen Lucyrekin eztabaidatzeko gogorik eta bere eskumuturreko erlojuaren iratzargailua jartzea erabaki zuen.

Badut gogoia nere arrebari merezitakoa emateko! pentsatu zuen Billek

*Bip, bip, bip!* egin zuen Billen eskumuturreko erlojuak goizean goiz. Begiratu zion eta hamaikak bost gutxi zirela konturatu zen. Arropa jantzi eta abiadura bizian jaitsi zituen eskailerak. Bakarrik zegoen etxean. Lucy lagun baten etxera joan zen gaua pasatzera eta gurasoak lehengusu bati bisita egitera joan ziren goizean goiz.

—Ederki! —esan zuen Billek pozez zorutzen. Telebistako dokumentala begien aurrean zuen.

—Labanaren bila noa, bestela nola moztuko diot letagina foka horri? —esan zuen telebistan azaldu zen foka bati begiratuz.

Bill telebistara hurbiltzen hasi zen. Ez zuen ideiarik ere nola sartuko zen telebista barruan. Eta ZUUUUUUUUUPPPPPPPP! bat-batean telebistak Bill xurgatu zuen. Begiak ireki zituenerako Antartikan zen.

—Han! Han foka bat dago! Zer? Zer gertatzen da?

Bat-batean Antartikatik futbol zelai batera joan zen Bill. Eta momentu horretan ahots batek esan zuen:

—Murgil zaitetzte futboleant! Gaur gauean, bederatzi eta erdietan, ETB 1ean, 2008ko txanpions-ak hastera doaz!

—O, ez! Iragarkietan nago! Eta orain zer?

Bill oso urduri jarri zen.

—Beno, itxaron egin beharko! Ez dut beste aukerarik! —jarraitu zuen esaten.

Zazpi minutu pasa ziren eta berriz Antartikan zen. Hasieran ikusi zuen foka berberarengana hurbildu, labana atera, baina fokak ihes egin zuen. Bill fokaren atzetik abiatu zen korrika, harrapatu, letagin batetik heldu eta... krak! labanarik erabili gabe kendu zion letagina. Foka haserre bizian jarri zen eta Billen atzetik korrika hasi zen.

—Baso bat ur! —oihukatu zuen Billek.

Bat-batean bere etxean agertu zen, letagina eskuan zuela. Bere gelara joan eta liburu hartu zuen:



*Enara Larreta*

*Oso ongi, letagina lortu duzu! Jarri ezazu liburuaren gainean, gero joan zaitetz 89. orrialdera. Han magiaren erabilpena azalduko dizut.*

Letagina liburuaren gainean jarri ondoren, 89. orrialdera joan zen irrikatan. Hasi zen berriro irakurtzen, baina oraingoan ahots urduriagoarekin:

*Kar, kar, kar! Ederra inozoa! Dena irentsi duzu? Txantxa besterik ez zen! Bai, mutil, bai. Lan guztia, alferrik egin duzu! Hau, zure arreba maitagarriaren ideia besterik ez da izan! Kar, kar, kar! Inozo ipurtandia! Afalorduan ikusiko dugu elkar. Lucy.*

-Zeeer? Ez da bidezkoa!

*Alba Carretero Lizaso*

## **Gaztelu misterioitsua**

Kaixo! Jon izeneko gizon bat naiz. Asko gustatzen zaizkit leku misterioitsuak eta zuei istorio bat kontatzeko asmotan nago.

Orain dela sei hilabete, misteriozko liburu bat irakurtzen ari nintzen herriko liburutegian. Goizeko ordu biak arte egon nintzen eta, derrepente, liburu baten barruan, mapa bat aurkitu nuen. Gaztelu baten mapa zen. Orri berean, hau jartzen zuen:

*Gaztelu hau mugikorra da, astero tokiz aldatzen da.*

*Barruan Kong izeneko munstro handi eta arriskutsua bizi da. Oso indartsua da. Gai da ukabilkada batez Eiffel dorrearen moduko bat botatzeko. Baina, adi! 2008ko urtarrilaren 7rako ez bada gazteluko atea ixten, Kong gaztelutik atera eta mundua suntsituko du.*

Harrituta, esan nion nire buruari:

—Hau saihestu beharra dago!

Mapa eta nire riñonera hartu eta, korrika, etxera joan nintzen.

Hurrengo egunean, mapa arraro hartan giltza bat ikusi nuen, marraztuta. Berehala, nire bi lagunak bila joan nintzen: Pello eta Aitor. Kontatu nizkien azaltzen ziren detaille guztiak eta niri laguntzea etorri ziren. Aurrena, giltza bilatu behar genuen. Mapa ongi aztertu ondoren, konturatu ginen Hong Kong-en zegoela. Hong Kongera joateko hegazkina hartu genuen, baina nire aspaldiko etsaiak, pertsona maltzurak, Leonard eta Michael, adi zeuden eta espia bat bidali zuten, gure berri jakiteko. Leonard eta Michaelen plana zen Kong askatzea eta mundua suntsitzea. Konturatu ginenerako, gure atzetik zetorren hegazkin supersonikoa, barruan espia zuela.





*Alvaro Azkue*

Misilak bota zizkiguten; baina batek ere ez zigun eman. Lurreratzeko geundela, azkeneko misila bota ziguten eta hegalean eman ziguten; gure hegazkina Hong Kongeko plaza batean gelditu zen. Hartu genuen mapa eta konturatu ginen nahastu egin ginela, alderantziz begiratu geniola mapari eta, Hong Kongera joan beharrean, Argentinara joan behar genuela; Buenos Airesera, hain zuzen.

Hegazkinaren hegala konpondu eta Argentinarentz abiatu ginen. Bidaia osoan Pellok ez zuen hitzik ere esan eta susmo txarrak hartzen hasi ginen. Gaua iritsi zen eta Brasilen geratu ginen lotan. Goizeko laurak aldera Pello norbaitekin hitz egiten aditu nuen. Leonardekin ari zen hizketan, Buenos Airesera joango ginela esanez. Aitor esnatu nuen eta plan bat pestatu genuen. Bolivia gainean geundela, Argentinara iritsi ginela esan genion. Paraxutak jantzi genituen eta Pellori esan genion aurrena berak salto egi-teko, eta horrela egin zuen. Aitorrek eta nik Argentinara jarraitu genuen.

Buenos Airesera iritsi ginenean, supermerkatu batean aurkitu genuen giltza eta gaztelu misteriotsu horretara abiatu ginen. Oso beldurgarria zen eta ez geneukan denbora asko. Hurrengo egunean, Kong maltzurra gaztelutik aterako zen. Bidean gindoazela, atzera begiratu eta Leonard eta Michael ikusi nituen; haien ondoan Aitor zegoen. Giltza eskatu zidaten. Eskua poltsikoan sartu eta liburutegiko giltza eman nien. Ez ziren ezertaz konturatu eta berak baino lehenago iritsi ginen gaztelura. Egiatzko giltza poltsikotik atera eta ondo-ondo itxi nuen atea, Kong atera ez zedin. Gero, giltza itsasora bota nuen eta, ez dakit zer gertatu zen, baina gaztelua desagertu egin zen.

—Aaaaaaaa!

Ohean esnatu nintzen, baina gazteluko giltza eskuetan nuela.

*Alejandro Fernandez Baylin*



*Jon Barrenetxea*

# Tomax

Orioko baserritxo txiki batean aitona-ilobak hitz egiten ari ziren:

—Aitona, aitona! Kontaiguzu istorio polit bat.

—Ongi da, baina... nahi dudana zera da: ez dut kexarik entzun nahi:

Bazen behin, Donostiako ospitalean jaio zen ume bat, Tomax izena jarri ziotena. Bere ama Anbroxia oso pozik zegoen mutila jaio zelako. Anbroxiak ezin zuen sinetsi bere sabelean sortu zela ume eder hura. Bere ustetan munduan ez zegoen ume horren parekorik, eta horrek egiten zuen eder eta berezi. Bikaina zen, benetan bikaina. Ez zuen ezer txarrik eta familia osoa oso pozik zegoen.

Arazoa hiru urte zituenean sortu zen. Eskolan hasi zen eta hitz egin behar zuen, baina hitz totela zela jakin zuten. Gelakoek iseka egiten zioten eta oso gaizki pasatzen zuen. Azkenik, hitzik ez egitea erabaki zuen, eta eskolan errieta egiten zioten.

Egun batean zigortuta geratzeko zorian zegoen eta berriz hitz egiten saiatu zen:

—Ka-ka-ka... —eta, berak amaitu baino lehen, gelako zirikatzaile batek esan zuen:

—Ez, kaka, ez pixa! —eta, momentu horretan, jende guztia barrez hasi zen.

—Kar, kar, kar!

Orduantxe amaitu zuen Tomaxek:

—Karlos maisua!

Berriro ere gelakide guztiak barrezka hasi ziren:

—Kar, kar, kar! Karlos maisua! Kar, kar, kar!

Handik aurrera txiste bat bezala izan zen, eta Tomax onartua izaten hasi zen eskola guztian eta, geroztik, asko hitz egiten hasi zen.

Tomax isekarien lagun bihurtu zen. Eta, ohartu zenez, ez ziren gaiztoak. Bururatzen zitzaion guztia esateko ohitura hartu zuen. Horietako asko txisteak ziren; baina, zori-txarrez, Tomaxentzat, gehienak irakasleari buruzkoak ziren. Irakaslea kokoteraino zegoen eta berarekin hitz egitea erabaki zuen.

Tomaxek esplikatu ziotenean zer pasatzen zen, Karlosek eta berak tratu bat egin zuten. Gutxiagotan hitz egingo zuen, beharrezkoa zenean bakarrik; gainontzean, komunera joan behar zuenean eta horrelakoetan, keinu bat erabiltzea nahikoa izango zen; eta eskolatik kanpo nahi adina hitz egingo zuen. Handik aurrera denak pozik bizi ziren eta Tomax lagunartean geratu zen.



*Izaro Houghton*

—O, ze istorio polita.

—Aitona, eta zer pasatzen da ondoren?

—Ba, Tomaxek lan on bat aurkitu zuen, ezkondu egin zen, umeak eduki zituen, eta, ondoren, bilobak. Eta orain istorioa kontatzen ari zaie bilobei.


—Aitona! Tranpatia eta gezurtia zara!

—Ez, ez da gezurra. Lehen hitz totela nintzen, baina orain dagoeneko ez.

—Eta orduan... istoriokoa... zu zara?

—Noski baietz! Eta, orain, goazen askaria jatera.

*Eider Arruti Sanchez*



*Maidalen Rodriguez*

# Petrolioaren zergatia?

Ni Itsaso naiz, hogei urteko neska gazte bat, eta, esaten didatenez, neska oso alai eta atsegina naiz. Esan beharra dago, baita ere, hankak inurriaren tamainakoak ditudala. Nitaz hitz egiteari utzi eta nire nebari buruz hitz egingo dugu orain. Nire nebaren izena Joseba da, eta oso burugogorra da, gure aitona Joxe bezalakoa; baina ez orain bakarrik, hemezortzi urte dituenean; ez, lehenago ere horrelakoa zen: burugogorra. Baina esan beharra dago, horretaz aparte, nik ikusi ditudan begirik politenak dituela, urdin-urdinak.

Orain Josebari, aitona Joxeri eta niri gertatutako istorio polit bat kontatuko dizuet ea gustatzen zaizuen eta ni bezain ondo sentitzen zareten entzutean.

Duela hamar bat urte gertatu zen, Josebak zortzi urte zituenean eta nik hamar. Donostiako hondartzan gertatu zen. Joseba eta ni hondartzara joan ginen. Han denbora bat pasa ondoren, konturatu ginen izurde bat hilda zegoela. Hasieran ni asko izutu nintzen; baina Josebak lasaitu egin ninduen. Joseba izurdearengana joan zen, eta, zer gertatu zitzaion ikustean, niregana etorri eta esan zidan:

—Itsaso! Zerbait arraroa du izurde horrek, orban beltz bat du azalean.

Eta nik erantzun nion:

—Zerena izango da? Ez du zentzurik —esan nuen harriturik.

—Ni aitona Joxerengana joango nintzateke berari galdetzera. Zer iruditzen zaizu zuri?

—Bai, goazen.

Aitona Joxek aurpegi guztia ximurrez beteta zuen, eta orain ere horrelaxe du; oso txikia zen orain bezala, baina hoberena da oso txiste kontalari ona dela, munduko onena.

Joseba eta ni aitonarengana joan ginen korrika batean. Aitonarengana iristean, gertatutakoa kontatu eta, korrika, hondartzara joan zen. Hondartzara iritsi eta izurdea ikustean, esan zuen:

—Orban hau petrolioa da. Zer iruditzen zaizue gure txalupa hartu eta petrolioaren zergatia bilatzera joatea?

Josebak eta nik erantzun genuen:

—Bai, aitona! Goazen!

Txalupan gindoazela, urrutian zerbait arraroa ikusi genuen. Hurbildu eta hondoratzten ari zen itsasontzi bat zela ikusi genuen. Iritsi ginenean itsasontziaren ondora, hiru-





*Alazne Arruti*

rok ingurua aztertzen hasi ginen, ea norbait bizirik zegoen. Aztertu eta aztertu ibili ginen, baina ezer ez. Ordu erdi bat egon ginen begira eta, azkenean, joatera gindoazela, soinu bat entzun genuen. Aitonak buelta eman zion txalupari eta hiru pertsona aurkitu genituen. Barruko logela batean ezin atera zeuden. Eta aitona Joxek esan zigun:

—Begiratu ea zerbait aurkitzen duzuen, kristala puskatzeko.

Hirurok bila hasi ginen, baina aitona Joxek bat-batean su-itzailgailu bat aurkitu zuen. Aitonak kristalera bota zuen su-itzailgailua eta hiru gizonak bizirik atera ziren logelatik eta, gero, txalupara igo ziren.

Hiru gizonak eskerrak eman zizkiguten eta esan ziguten zer gertatu zen: motorra gaizki funtzionatzen hasi zela eta, itsasontzitik atera nahi izan zutenerako, ezin izan zutela atera, eta geroago gu etorri ginela.

Hiru gizon horiek berehala ospitalera eramane genituen, badaezpada, eta gu etxera joan ginen, poz-pez egin genuenagatik. Horrela bukatu zen gure petrolioaren istorioa.

Orduetik hona hamar bat urte pasa dira, baina oraindik istorio hori entzutean asko pozten naiz egin nuenagatik, nire neba eta aitona Joxerekin.

*June Alkorta Marin*



*Alba Carretero*


# Kirola

Kirola ez da justua  
jende askorekin  
eskuzabalak dira  
gure arraunakin  
eskubaloian gabiltza  
diru gutxirekin  
baina bizi behar dugu  
arraunaren azpin.

Orion arrauna eta  
futbola munduan  
fitxaje izugarriak  
diru kopuruan  
zelai guztiak beterik  
jendea barruan  
futbola da dagoena  
jendean buruan.

Futbol zelai ederrak  
toki guztietan  
ez dago horrelakorik  
beste kiroletan  
telebisten oihartzuna  
leku guztietan  
beste ezer ez daukagu  
gizarte honetan.

*Ander Atorrasagasti Aizpuru*




*Laida Dorronsoro*

# Kukuarri

Kantauriri itsatsirik  
dugu Kukuarri  
Maiatzak 25  
jendea ugari  
zeure martxan igo zaitez  
ez ibili larri  
gora igota bada  
salda ta freskagarri

Gurutzetik begira  
bada hainbat herri  
zelai zabalak eta  
zenbait larre gorri  
itsasoa aurrean  
paisaia zoragarri  
anima zaitez eta  
gurekin etorri.

*Maria Etxeberria Bengoetxea*



*Maitane Eskudero*

# Bizimodu berri bat

—Jokin! Diru zorroa hartu eta zoaz alboko dendara patata poltsa bat eroatera —esan dit amak, lanpeturik.

Bizikleta hartu eta, diru zorroa eskuetan dudala, abiatu naiz dendarantz. Etxe aurreko tabernan betiko aitonak ari dira kartetan. Kale garbitzailea ere ganorarik gabe dabil bere zereginean; erosketak egin ondoren, berriketan alboko bizilagunak. Denak berdin doala ematen du dendara iritsi arte. Atea ireki dudanean, inoiz baino jende gehiago ikusi dut. Denek aurpegi kezkatu eta beldurtuak dituzte. Patata erosten hasi naizen bitartean, albokoen elkarrizketara joan zait belarria:

—Honaino iritsi behar genuela esatea ere! —dio bigarren solairukoak.

—Pentsatzeak ere hotzikara ematen du —erantzun dio arrandegikoaren emazteak.

—Lasai, lasai! Jainkoak aterako gaitu honetatik ere —esan du, azkenik, herriko apaizak, lasai plantak eginez, aldi berean aurpegi urduriarekin. Patata poltsa hartu eta buruari bueltak ematen ari naizela, iritsi naiz etxera. Amari poltsa eman eta pentsatu dut dendan entzundakoa hobe zela bazkaritan aitatzea. Horregatik, nire gelara joan eta atzo laugarren kapituluan utzitako liburua irakurtzen hasi naiz.

Seigarren kapitulua irakurri ondoren, sukaldera joan naiz, bazkaltzeko ordua zelakoan. Sukaldera sartu eta aita prentsa irakurtzen ari zen. Amari begiratu serio bat egin dio eta biak niri begira jarri dira zerbait gaizki egin banu bezala. Aita hasi da hitz egiten:

—Jokin, badakizu orain geure bizimodua pixka bat aldatu dela... eta badakizu, baita ere, jende askok arazo ezberdinengatik beste nonbaitera joan behar duela bizitzera... ba... gu...

Orduan, amak eten egin dio eta berak hartu du hitza:

—Badakit ez duzula ondo hartuko, baina Nafarroatik alde egin behar dugu.

—Nora, baina? —galdetu diot ahots isilarekin.

—Euskal Herritik kanpora. Ameriketako Mexikora zehazki —erantzun dit.

Zer esan ez dakidala geratu naiz. Gorputza harrizkoa izango banu bezala. Kontuan hartu behar da alboko herrietara bakarrik joan izan naizela urrutien eta Euskal Herritik irtetea ulergaitza egiten zait. Aulkian eseri eta, koilara harturik, porru patataren pureari birak ematen egon naiz, zer pentsatu ez dakidala, ordu bietako kanpaiak aditu arte.

Gau txarra izan da gaurkoa. Erlojuaren tik-tak hotsaren eta haizearen ondorioz, begiak ixtea kosta egin zait. Sukaldera joandakoan, katilu bat zegoen esnez beterik eta



alboan ogi zati bat. Mahiaren beste aldean aita dago prentsa irakurtzen goizero bezala. Hitz egiten hasi garenean, bezperako gaia atera dut jakin-minez:

—Aita! Baina zergatik joan behar dugu Mexikora?

Berak ez entzunarena egin du, baina ni begietara begiratzen geratu naiz:

—Ba, egia esan, badakizu Euskal Herrian espainiarrak gero eta ugariagoak direla. Hori dela-eta gu beren menpe egotea nahi dute eta... gu, bizimodu berri bat izateko asmotan, erbestera joatea beste aukerarik ez dugu.

—Eta noiz joango gara?

—Hurrengo astean zehatz-mehatz.

Elkarrizketa bukatutzat eman eta aitak bere jaka hartu eta lanera joan da. Nik, egia esan, ikastolara joan behar dut; baina egun hauetan ez naiz joaten zeren arazo asko baitago, klaseak behar den bezala jasotzeko.

Azkar pasa zait astea, eta, konturatzerako, joateko eguna iritsi da. Goizean goiz esnatu naiz, amari maletak egiten laguntzeko. Gosaldu eta sukaldeko mahaian eserita geratu gara biok, aita iritsi zain. Azkenean, iritsi da eskuetan hiru paper zati modukoekin. Aitari itxaroten ari ginenean, amak esan dit Donostiara autobusez joango garela eta Donostian itsasontzi bat hartuko dugula, Ameriketara eramango gaituena. Aitak eskuetan dituen paper zatiak autobuseko billeteak dira. Geure maletak hartu eta, etxea agurtzeko astirik eduki gabe, lasterka aitaren atzetik noa. Azkenean, jende multzo bat zegoen lekura iritsi gara. Bertan denek maleta bat edo bi zituzten eskuetan. Zain egon ondoren, autobusa etorri da. Atzealdetik ke beltz-beltza botatzen du. Autobusa ez zetorren hutsik, barruan jende ugari zegoen, eta Donostiarainoko bidaia ezin txarragoa izan da. Batetik, zutik joan behar izan dugu, sardinak latan bezala, eta, bestetik, kea arnasten pasa dut bidaia osoa. Donostiara iritsi garenean, zuzenean portura joan gara. Bertan era guztietako itsasontziak daude, txalupa txikiak, eta horietan kaioak arrantzan ari dira. Baina ederrena haien atzean dagoen itsaso zabala da. Zirrara eragin dit, itsasoa ikusi gabe bainengoen. Denbora luzea itxaroten egon ondoren, itsasontzi handi bat etorri da portu barrenera. Eskailera modukoak jaitsi ditu, jendea bertara igo dadin. Orduan, gu ere bertara igotzen hasi garenean, gizon marinel trajedun bat horrela mintzatu zaigu:

—Zuen txartelak, mesedez

Aitak eskua patrikan sartu eta txartelak erakutsi dizkio. Gizonak begiratu azkar bat egin eta ez dutela balio esan dio. Orduan, aitak hartu du hitza:

—Nola, baina? Gaur erosi ditut eta.

—Sentitzen dut; baina txartel hauek ez dira benetakoak. Ez dute besteek duten ikur berdina, eta, mesedez, kendu paretik, jende asko dago-eta sartu nahian.

Aitak bira eman eta burumakur eskaileretatik behera joan da. Amak eta nik atzetik

segitu diogu. Txartelak hartu eta amorru biziz zakarrontzira bota ditu. Orduan, kostara begiratu dut eta itsasontzi txiki bat ikusi dut zama garraiatzen. Aitak ere bertara begiratu du. Azkenean, hara joatea erabaki dugu:

—Egun on. Nora zoazte? —mintzatu zaio aita hango marinel bati.

—Ameriketara; hain zuzen ere, Mexiko aldera.

—Ba al daukagu zuekin bidaiatzea? Ez genuke enbarazurik egingo.

Marinelak beste bati zerbait esan dio eta honela erantzun dio aitari:

—Ongi da! Hor baduzue tokitxo bat.

Aitak dirua eman dio beraiekin bidaiatzeagatik eta aurpegi alaiarekin itzuli da guregana. Handik gutxira amarrak askatu eta portutik atera gara.

Hirugarren egunera arte gauzak ondo joan dira. Baina, arratsalde aldera, beste itsasontzi bat gerturatzen ikusi dugu. Azkenean, itsaslapurrak dira, piratak. Itsasontziko janari gehiena eraman digute eta amari bere koilarerik kuttunena. Beste marinel bati, urrezko erloju bat. Nik beldurra pasa dut, ipuinetan-eta piratek fama txarra baitute. Oraingo honetan zorte onekoak izan garela esan digu aitak; batetik, ondo gaudelako eta, bestetik, bidaiaren gehientsuena eginda dugunez, janari behar handirik ez dugulako edukiko.

Bidaian ama gaixorik jarri zaigu azken aurreko gauean. Bera zaintzen pasa behar izan dut gaua eta, horregatik, lo falta sumatzen dut. Botaka ere egin du, ez zen ongi sentitzen eta aitak bere janaria berari eman dio. Nik nire parte ziztu bizian jan dut eta ez neukan ezer berari emateko. Hurrengo egunean ederki dago. Bertako marinel batek bere bizitzako pasarteak kontatzen dizkit gauetan, lo errazago hartzeko.


Gaurkoarekin bost gau daramatzagu itsasoan. Eguerdi partera kaiok ikusten hasi gara.

Kapitainak lurra gertu egongo dela dio. Horrek erabat alaitu nau. Azkenean, iritsi gara. Bertako portua ez da hain handia. Bertako marinelak zama deskargatzen hasi dira lehenbailehen eta gu, geure maletak eskuetan ditugula, agurtu gaitu kapitainak

—Bueno, ba, bukatu da bidaia azkenean! Badakizue, zuhurtziaz ibili inguru hauetan. Besterik gabe, agur eta ondo segi! —denoi besarkada bana eman eta bere zereginetara itzuli da. Orduan, aitak amarengana eta nigana begiratu, arnasa sakon hartu eta alai esan du:

—Bizimodu berri baten hasiera da hau!

*Ander Orbañanos*



Julen Aizpurua

# Bizitzaren oztopoak

## I

36 urte nituen arte nire bizitza normala zen. Nire hiru seme-alaba eta senarrarekin egotea asko gustatzen zitzaidan. Sarritan joaten ginen oporretara. Bostok batera egotea zen niri axola zitzaidan gauzarik garrantzitsuena. Senarrak, Juan Jose zuen izena, baina guztiok Juanjo deitzen genion. 38 urteko gizon altu eta argal bat zen, ile hori eta begi berdeduna, enpresa bateko nagusietako bat zen, baina familiarekin egotea zen gehien gustatzen zitzaiona, eta ia bere denbora libre guztia gurekin pasatzen zuen. Nire alaba Nagore ere argala zen, ile hori kizkurra, begi marroi ederrak eta oso aurpegi polita zituen. 14 urteko nerabe baten moduan, denbora guztian mutiletan, lagunetan eta bere fisikoan pentsatzen zegoen. Nagore jada ez zen asko ibiltzen familia giroan, lagunekin egotea nahiago baitzuen; gainera, nire ustez, mutil laguna zuen, baina ez zidan ezer esan nahi izaten. Nola esango dio, ba, horrelakorik amari? Esan beharra dago oso ikasle ona zela. Peru, 9 urteko mutiko alaia, aurpegia pekatxoz betea, aitaren moduko begi berde ederrak zituen eta argala eta oso bizkorra zen. Nahiz eta arrebak baino denbora gehiago pasatu familiarekin, denbora libre gehiena lagunekin jolasten pasatzen zuen: esku-baloia ez bazen, futbola zen edo, bestela, saskibaloia, eta baita pilota ere eta hainbat kirol gehiago. Nereak 2 urte zituen. Honek ere ile horia zuen, baina lixo-lixoa eta beti irribarrea aurpegian. Neskato benetan zintzoa zen, izugarri maite zituen anai-arrebak, batez ere Nagore, honek sarritan zaintzen baitzuen. Eta, azkenik, ni neu, 36 urteko emakume ezkondua oso-oso zoriontsua, guraso eta anai-arrebekin oso ongi konponetzen nintzen, 5 anai-arreba nituen, 3 mutil eta 2 neska, bostak ni baino zaharragoak: zaharrena Jon, bigarrena Cristina, hirugarrena Maite, laugarrena Iñaki eta bosgarrena Mikel.

Nire bizitza perfektua zen, egun batean bularrean konkor bat nuela konturatu nintzen arte. Neure senarrari esan nion eta hurrengo egunean ospitalera joan ginen. Ni oso urduri nengoen, nire senarrari begiratzen nion eta hark musu bat ematen zidan masailean; bera ere urduri zegoela nabari zen. Nire txanda ailegatu zen, barrura sartu ginen eta han bata zuria jantzita zuen emakume itsusi bat zegoen.

—Mari, ezta? —nik buruarekin baietz esan nion—. Pasa, sartu barrura eta eseri aulkian, mesedez.

Ni geroz eta urduriago nengoen. Bularrean konkor bat nuela esan nion. Hark, segituan, nikia eta bularretakoa kentzeko esan zidan; nik neure senarrari begiratu nion, eta honek begiarekin keinu bat egin zidan. Mezua segituan hartu nuen: maite ninduela esan nahi zidan; orduan, irribarretxo bat egin nion eta arropak kendu nituen. Hankak dardara betean nituen eta bihotza taupada bizian. Orduan, medikuarengana hurbildu nintzen. Hura nire bularrak ukitzen hasi zen, eta, momentu hartan, okerreana pasatu zitzaidan burutik. Orduan, medikuak hartu zuen hitza:

—Ez nago seguru. Analisiak egin beharko dituzu.

Hori entzutean, izugarrizko lasaitua hartu nuen. Esan zidan ez zuela ezer txarrik ematen; baina, badaezpada ere, ongi begiratu behar zela.

Egun berean senarra eta biok analisiak egitera joan ginen. Ni lasai nengoen medikuak esan zidanean ez zela ezer txarra; hitz horiek izugarri poztu ninduten. Esan zidantenez, hurrengo ostegunean itzuli behar nuen analisisien erantzunen bila.

## II

Iritsi zen osteguna. Oraingoan, gurasoekin joan nintzen analisisien erantzunaren bila. Ni ez nengoen lehenengo egunean bezain urduri, aurrekoan medikuak esan zidanarekin nahiko lasai geratu bainintzen.

Nire amak 72 urte zituen eta Maria zuen izena; ez da geldirik egoteko jaioa, beti badu zerbait egiteko eta niri asko lagundu dit haurrekin, batez ere Nagore eta Perurekin. Nire aitak, berriz, Joxe Mari izena du, hortik datorkit nire izena; hau ere ez da ezer egin gabe egoteko jaioa. Pilota partiduak ikustera sarritan joaten da, baita Anoetara, Real zale porrokatua baita.

Ospitalean sartu ginen, eta itxaron gelan eseri ginen. Bertan hiru emakume eta gizonetako bat zeuden. Emakumeetariko batek ez zuen ilerik, kimioaren eraginez joana zuen; gehienez, 45 bat urte izango zituen eta berarekin zegoen beste emakumeak 40 bat inguru. Besteak, aldiz, oraindik bazuen ile apur bat. Hark ni baino gazteagoa zirudien; 30 urte inguru izango zituen, eta berarekin zegoen gizonak nire tankerako adina izango zuen. Ni gurasoen artean nengoen. Aitak denbora guztian hanka mugitzen zuen; amak, aldiz, alde guztietara begiratzeko zuen. Biak oso urduri zeuden. Ni, aldiz, ez nengoen oso urduri; noski, urduri banengoen, baina lehengoan baina askoz lasaiago.

Handik pixka batera, lehengo eguneko mediku itsusi hura irten zen, baina ez zuen nire izena esan. Handik 10 minutu ingurura iritsi zen nire txanda.

—Mari Artola, mesedez.

Eta aita, ama eta hirurok zutitu eta barrura sartu ginen. Amak ipurdian jo ninduen eta aitak eskutik heldu zidan. Medikiak egun onak eman zizkigun eta beste mediku bati eman zion txanda. Hark karpeta bat zekarren, eta bertan nire izena argi irakur zitekeen.

—Ikus dezagun... —hori esanez, karpeta ireki eta analisisien erantzunak atera zituen.

Ez zuen batere aurpegi onik. Beldurtzen hasia nintzen. Amak eskutik heldu zidan eta bertan musu bat eman zidan.

Hasperen egin zuen.

—Beno, egia esan, ez dut notizia onik...

Nik ez nekien zer egin. Seguru nengoen erantzunak onak izango zirela; ez nuen inondik espero horrelakorik; negar egiteko izugarritzko gogoia nuen, nire bizitza osoa ziren nire familiakoak galtzeko arriskua nuela pentsatu nuen. Berriz ere berak hartu zuen hitza:

—Ea, egia jakin nahi baduzu, minbizia duzu.

—Ai, ene, ene, ene! —horixe izan zen nire amaren erantzuna.

Niri malkoa atera zitzaidan eskuineko begitik.

—Baina badu bere alde hona.

—Nola izango du alde hona honelako erantzun batek? —nire aitaren buruan ezin zen sartu bere alabatxo txikiak minbizia zuenik.

—Nahiko azkar harrapatu dizugu. Eskerrak azkar konturatu zaren. Ez bazinen etorri askoz ere kalte handiagoa izango zenuen.

Pixka bat gehixeago egon ginen kontu honi buruz hitz egiten. Esan zidanez, oraindik begiratu egin behar zuten ea jada ebakuntza egin ziezadaketen, baina seguruenik kimioterapiarekin hasi beharko nuen. Honen erantzuna astelehenean emango zidatela esan zidaten, baina oraingoan etxera deituko zidatela.

Ospitaletik irten bezain laster senarrari deitu nion. Hitz egiten nuen bitartean, negarra irteten zitzaidan. Senarrak etengabe lasaitzeko esaten zidan, baita asko maite ninduela ere. Bitartean, ama neba-arrebei deitzera joan zen. Nik senarrari umeei ezer ez esatea zela hoberena esan nion; berak esan zidan hori geroago hitz egingo genuela, eta, berriz ere, lasai egoteko.

Etxera itzultzeko bidean, gurasoei galdegin nien ea zer zen hoberena: umeei esatea edo isilik mantentzea. Amak segituan esan zidan Nagoreri, behintzat, esatea izango zela hoberena; egia esan, jada ez da umea, baina aitak esan zidan hobe izango zela oraingoz ezer ez esatea. Ni aitaren iritziaren alde nengoen, oraindik goiz zela pentsatzen nuen.

Etxera iristean, Juanjo zain nuen. Ez nuen espero bertan egotea eta ea zer egiten zuen galdetu nion. Berak lana alde batera utzi eta nirekin egon nahi zuela esan zidan eta musuka hasi ginen; hamasei urteko neskato baten moduan sentitzen nintzen, inoiz baino maiteminduago. Ohean amaitu genuen. Nire senarragatik ez balitz, ez dakit zer egingo nukeen. Izugarritzko esperientzia ona izan nuen egun hartan. Zerbait behar nuen eguna alaitzeko; egia esan, izugarritzko ezusteko txarra hartu nuen.

Txikiak etxera itzultzear egongo ziren eta, bitartean, Juanjo eta biok Nagoreri esatearena edo ez esatearenaz hitz egiten egon ginen. Berak esatea hoberena izango zela esaten zidan. Ni ez nengoen oso seguru, baina alde batetik arrazoi zuen. Nagore jada ez zen umea, eta horrelakoak ulertuko zituela pentsatzen nuen.

Iristean, senarrak bi txikiak hartu eta kalera eramán zituen. Ni, berriz, Nagorerekin

geratu nintzen etxean. Ikasi beharra zuela esan zidan; beraz, aprobetxatu egin nuen berarekin hitz egiteko. Nagorek ez zekien ezer, ez medikuarengana joan nintzenik ezta konkorra atera zitzaidanik. Ikasten ari zela, gelako atea jo eta hitz egiteko denboratxo bat bazuen galdetu nion. Baietz esan zidan segituan.

—Zer gertatzen zaizu ama? —galdegin zidan.

—Ea, laztana! Gauza oso garrantzitsu bat esan behar dizut. Mesedez, ez haserretu.

—Lasai, ama! Zer duzu ba?

—Lehengoan, aitarekin medikuarengana joan nintzen. Eta analisi batzuk egin behar izan nituen. Analisi horien erantzunaren bila joan naiz gaur aitonarekin eta amonarekin eta... —ez nekien nola esan.

—Mugi! Esan, zer gertatzen da?

—Bularrean nuen konkorraren analisiak ziren. Eta erantzunean minbizia dudala esaten du.

Nik lurrera begiratu nuen.

—Zer?

Nagore negarrez hasi zen eta besarkatu egin ninduen.

Izugarrizko pena ematen zidan gaixoak, negar eta negar. Pare bat minutu berandua-go hitz egiten hasi zen:

—Ama.

—Esan, laztana.

—Ez zara hilko, ezta?

Ez nekien zer erantzun, baina zerbait bilatu nuen.

—Ez, laztana, medikuek ahal duten guztia egingo dute niri minbizi hau ezabatzeko. Zu lasai.

—Baina nik ez dut nahi zu gaixorik egotea.

—Nik ere ez; baina lasai, laster pasatuko da. Esperantza da mundu honetan galdu behar den azken gauza. Izan beti kontuan.

Nire alabatxoari esan nion, mesedez, txikiei ezer ez esateko; ez genuela ezer jakite-rik nahi, oraindik txikitxoak zirela. Nagorek eskerrak eman zizkidan berari esateagatik. Ez nuen espero hau esango zidanik, baina esan zidan jada bera ez dela haurtxo txiki bat eta horrelakoak ulertzen dituela. Arrazoi zuen; askotan haurra bezala hartzen genuen, baina utzia zuen kontu hori.

Iluntzean, afaldu eta Nerea eta Peru oheratzean, Juanjo, Nagore eta hiruok geratu ginen egongelan. Momentu batean, ni komunera joan nintzen eta nire senarraren eta alabaren arteko elkarrizketa entzun nuen.

—Nagore.

—Zer?

—Aurrerantzean amak gaizki pasatuko du, eta ahal dugun guztia egin behar dugu bera ez haserrarazteko.

—Bai, aita! Nik ahal dudana egingo dut.

Orduan, irribarre egin nuen. Izugarri maite ninduten. Edozer egingo zuten nigatik. Handik pixka batera, etxeko txirrinak jo zuen. Nagorek zabaldu zuen atea.

—Kaixo, izeba!

Maite zen, nire ahizpa.

—Kaixo, laztana. Ama etxean da, ezta?

—Bai. Gurasoak eta hiruok gaude egongelan. Pasa.

Maitek, egongelan sartzearekin batera, niregana etorri eta musu handi bat eman zidan. Ordu batean egon ginen hitz egiten. Esaten zidan, zerbait behar banuen, segituan berari deitzeko. Maite joatean, Cristinak deitu zidan, eta, geroxeago, Jonek. Hauek ere zerbait behar banuen hor zeudela esateko deitu zidaten. Mikelek eta Iñakik hurrengo egunean deitu zidaten; hauek haurtxo txikiak dituzte eta gauean ezin izan zidaten deitu.

Eguerdi aldera, klaseak amaitu ondoren, nire lagunik onenari deitu nion. Hark Lara zuen izena. Kafetxo bat hartzeko geratu ginen. Ni ailegatzerako, bera han zegoen nire zain. Guzti-guztia kontatu nion hasieratik bukaeraraino. Esan nion, baita ere, oraingoz mesedez inori ez esateko, ez nuela jendeak jakiterik nahi. Berak lasai egoteko esan zidan eta, laguntza behar banuen, deitzeko. Izugarrizko lagun ona zen. Gainera, txiki-txikitatik ginen elkarren lagunik onenak, hau da, ia bizitza osoa batera pasatu genuen. Izugarri maite nuen.

Iritsi zen asteburua eta senarrak esan zidan asteburu pasa joango ginela. Nik ez nekien nora gindoazen, baina baietz esan nion. Hura eta hiru seme-alabak motxila banarekin azaldu ziren. Nik ere arropa batzuk hartu nituen; senarrak esan zidan bainu jantziak hartzeko, badaezpada ere, agian pizina batera joango ginela, eta autoan sartu ginen. Ez nuen ideia zipitzik ere nora joango ginen.

Ordu eta erdi inguruan iritsi ginen: bost izarreko hotel bat zen. Ni harriturik nengoen; Nagorek eta Juanjok elkarri begiratzen zioten eta barre egiten zuten. Bien artean antolatu omen zuten bidaiatxoa. Sartzean, ate kanpoan izugarrizko letrekin "Hotel balneario" ipintzen zuen. Ni izugarri poztu nintzen: asteburu bat elkarrekin pasatuko



genuen bainuetxe batean. Peru iupi eta iupika hasi zen, Nerea, aldiz, ez zen ezertaz kon-  
turutzen; baina hura ere iupika hasi zen. Beti anai-arrebek egiten zutena egiten egoten  
zen. Ni autotik irteteen, Nerea hartu eta hotelera hurbildu nintzen. Besteek hartu  
zituzten maleta guztiak.

Izugarrizko asteburua genuen zain. Gelara iristean, Peruk korrika bere ohea hartu  
zuen. Nagore Nerearen ondoko ohean ipini zen eta Nerearena gure ohetik nahiko  
gertu zegoen. Izugarrizko komuna zuen, hidromasajearekin eta gelaren albo batean sofa  
handi bat eta telebista handi bat zeuden.

Trasteak utzi bezain laster joan ginen uretara. Peruk bizi egiten zuen. Nagore, berriz,  
denbora guztian Nerearekin egon zen, ni eta senarra, bitartean, masaje batzuk hartzera  
joan ginen.

Asteburu guztia horrela pasatu ondoren, etxera itzuli ginen. Lasaitasun paregabea zen  
hura. Umeak segituan joan ziren ohera, nekatuta baitzeuden. Gu ere azkar joan ginen  
ohera, ni behintzat nekatua nengoen. Horrenbeste txorrorekin bat nekatu egiten da.

### III

Iritsi zen astelehena eta jai hartu nuen unibertsitatetik. Egun osoan etxean egon nin-  
tzen deiaren zain. Goiz osoan ez zuen inork deitu. Eta Larari bazkaltzera etortzeko esan  
nion, deiaren zain nengoelako. Hark bostetan berriz ere joan egin behar zuen, arropa  
denda bat baitzuen.

Deitu zidaten, eta nahiko notizia ona jaso nuen. Esan zidaten oraindik oso txikia zela  
tumorea eta kimioterapiaren aurretik egingo zidatela ebakuntza eta, ondoren, 3 sesio  
izango nituela kimioterapiarekin eta beste hiru radioterapiarekin. Izugarrizko poza  
hartu nuen. Kimioterapiako saio kopuru minimoa hartu behar nuen. Eguna ipini zida-  
ten ebakuntzarako. Apirilaren 23a zen eta maiatzaren 16rako eman zidaten ebakuntza-  
rako ordua. Hori ospatu egin behar zela eta pare bat kopa hartzera joan ginen Lara eta  
biok eta laurak eta erdietarako etxera itzuli nintzen, txikiak laster etorriko baitziren, eta,  
gainera, Larak dendara joan behar zuen. Segituan deitu nion Juanjori. Hau pozez zora-  
tzen ipini zen. Gurasoei eta neba-arrebei ere segituan deitu nien, eta haiek ere pozez  
zorutzen jarri ziren. Ni ere oso pozik nengoen. Hurrengo asteazken arratsaldean joan  
behar nuen berriz ere; ongi zetorkidan ordu hori, jai bainuen. Aldi hartan Cristinarekin  
joan nintzen.

Dena ongi zihoala esan zidaten medikuek.

Maiatzean sartu ginen eta unibertsitateko zuzendariarekin hitz egiten egon nintzen,  
nola minbizia nuen eta ebakuntzarako baja hartuko nuela. Hura harriturik geratu zen.  
Ez zuen espero horrelakorik. Baina esan zidan nahi nuen denbora guztia izango nuela  
niretzat. Egia esan, oso emakume jatorra da. Gainera, esan zidanez, berak ere antzeko  
zerbait pasatu zuen eta, horregatik, lasai egoteko esan zidan. Medikuek esan zidanez,  
gaixotasun honetatik ehuneko laurogeita hamarra irteten da bizirik.

Iritsi zen ebakuntza eguna. Aldi hartan, senarrarekin joan nintzen. Oso urduri nengo. Esan zidatenez, ez zidaten titi osoa kendu behar; tumorea oso txikia zen eta zati bat bakarrik kendu behar zidaten. Sartu ninduten ebakuntza gelara eta anestesia eman zidaten. Ni lo geratu nintzen. Esnatzean, erizain bat zebilen han inguruan eta zorionak eman zizkidan. Oso ongi irten omen zen ebakuntza Izugarri poztu nintzen eta segituan gela berezi batera eramanez ninduten. Ohe handi bat, komun bat eta sofa bat zeuden nire gelan. Ni bakarrik egongo nintzen gela horretan. Banekien horiek nire senarraren kontuak zirela. Segituan azaldu zen Juanjo, aita eta amarekin batera. Hiruek musu eman zidaten eta nirekin hitz egiten geratu ziren denbora luzean. Handik pixka batera, Nagore heldu zen Iñaki eta bere emazte Jonekin. Peruri esan zioten katarro gogor bat nuela eta ospitalean nengoela, baina ez arduratzeko. Peru senarraren amarekin geratu zen.

Guztiak oso pozik ginen; batez ere, Nagore, bere aurpegia ikusi besterik ez zen. Ondoren, gurasoak, Iñaki eta Jone joan egin ziren, eta Cristina, Maite eta haren senarra Joxe etorri ziren. Hauekin hitz egiten egon ondoren, Jon, Maria, honen emaztea, Jaione alaba zaharrena —16 urte zituen— eta Mikel eta Itziar nire koinata etorri ziren. Gauean Juanjo geratu zen nirekin. Haurrak gurasoen etxera joan ziren lotara.

Bi egun geroago etxera joan nintzen. Nekatua nengoen eta ia denbora guztia ohean eta sofan pasatu nuen. Lagunak eta familiarrak asko etortzen ziren ni bisitatzerara. Batez ere, Nagore egon zen nirekin.

Hurrengo ostiralean, Lararekin joan nintzen ospitalera. Datorren hilaren 26an hasiko nintzen kimioterapiarekin. Banekien oso gogorra izango zela. Ilea eroriko zitzaidan, dezente puztuko nintzen eta horrelako hainbat gauza. Beraz, ezer baino lehen, ile-apaindegi batera joan nintzen Donostiara Maiterekin. Bertan ilea moztu nuen eta ileorde bat erosi nuen, ilerik gabe geratzen nintzenerako. Asko gustatu zitzaidan ileorde hori. Nire ilearen antzekoa zen.

Iritsi zen eguna. Amarekin joan nintzen. Lau orduz egon nintzen txutea hartzen. Bitartean, ogitarteko bat jaten egon nintzen. Oso gogorra da. Izugarri nekatzen du.

Hurrengo egunetan hasi zitzaidan pixkanaka-pixkanaka ilea erortzen. Etxean pasatzen nituen egunak, baina kalera ere irteten nintzen eta, kalean nengoen bitartean, jende guztiak animuak ematen zizkidan. Izugarri jende piloak du gaixotasun hau pasata. Ni ez nintzen konturatzen ordura arte, baina kalean geratzen ninduten esateko beren gaixoaldia nolakoa izan zen eta animatzeko.

Ilerik gabe geratzen ari nintzen, azkazalak ere horituta nituen. Oso gaizki ari nintzen pasatzen. Izugarri nekatua nengoen eta denbora guztian etxean egoteko gogoa nuen. Lagunak eta familia asko etortzen zitzaizkidan laguntzera eta arratsaldeak nirekin pasatzera. Baina nirekin gehien egoten zena Nagore zen. Gaixoa oso gaizki ari zen pasatzen. Ama horrela ikusteak ez dakit zer sentazio eragingo zion, baina ezer onik ez.



*June Alberta*

Arratsalde batean, hurrekin nengoela, Peruk esan zidan:

—Ama, zergatik ez duzu ilerik? Zer da, moda berria? —Peru beti txantxetan.

—Kar, kar, kar! —nik barre egin nuen. Baina, egia esan, disimulatzeko egin nuen. Pentsatzen egon nintzen eta senarrari deitu nion ea zer iruditzen zitzaion Peruri esatea. Berak baietz esan zidan. Orduan Perurengana itzuli nintzen eta hitz egiten hasi nintzaion:

—Peru, gauza bat esan behar dizut.

—Zer?

—Lehen galdetu didazu, ba, zergatik ez dudan ilerik.

—Bai. Ama, barkatu, txantxetan ari nintzen.

—Ez da hori, laztana!

—Zer da, ba, orduan?

—Gogoratzen nola egon nintzen ospitalean? Ba, ez zen katarroagatik eta gogoratzen nola egon naizen hil honetan amonarekin medikuan? Ba, guztia minbizia dudalako izan da.

—Nork... zuk? Baina ezin liteke; zu nire ama zara!

Gaixoak ezin zuen sinetsi.


—Badakit, baina horrela da.

Negarrez egon zen nire magalean eserita eta esan zidan asko maite ninduela. Horrek izugarri poztu ninduen. Berak esan zidan asko lagunduko zidala eta etxeko lanak bakarrik egingo zituela eta lagunekin gutxiago ibiliko zela eta denbora guztian nirekin egongo zela; baina nik esan nion lasai egoteko, berak bazeukala lagunekin ibiltzea. Izugarritzko borondatea ipini zuen eta nik asko eskertu nion.

Hurrengo hiru hilak antzekoak izan ziren. Egunetik egunera nekatuago nengoen. Nabaritu egiten nuen nola egunetik egunera ahulago nengoen. Jada ez nuen ilerik, asko loditu nintzen eta azkazalak horiturik nituen. Ileordearekin baino gehiago, zapi batekin ibiltzen nintzen. Honen gauzarik hoberena ez nuela depilatu behar zen. Kar, kar!

Azken sesioa nuen kimioterapiarekin eta Juanjo etorri zen nirekin. Txutea hartzen nuen bitartean, denbora guztian zer moduz nengoen galdetzen zidan. Neka-neka eginga nengoen. Baina baita pozik ere. Azkenekoa zen jada. Kimio gehiagorik ez! Azken lau ordu haiek eternitatea iruditu zitzaizkidan. Asper-asper eginda nengoen. Amaitzean, senarra eta biok Kontxan paseatu eta, ondoren, Arzak jatetxera joan ginen afaltzera.

Kimioaren erruz, ezin nuen eguzkirik hartu, badaezpada ere, ezta txuteak eman ziz-



*Mariana Sayalero*

kidaten besoarekin esfortzurik egin, ez bainuen indarrrik eta errehabilitazioa egin behar nuen.

Hurrengo hilean hasi behar nuen radioterapiarekin. Hemen, makina bat pasatzen zidaten. Hark minbizia izan nuen ingurua erre egiten zidan. Baita azala ere. Dosis hauek ordu erdi irauten zuten. Horrelako hiru hartzean, hiru hilabetean, amaitu zen dena. Aste bete barru itzuli nintzen berriz ere. Dena ongi irten zen. Minbizia ezabatu egin zen. Garbi nengoen! Hiru hilabetetik behin joaten nintzen errebisioa egitera. Dena ongi amaitu zen.

Hori bai, nire familiakoek begiratzera joan beharra izan zuten badaezpada ere.

#### IV

Unibertsitatera itzuli nintzenean izugarritzko harrera egin zidaten. Ongietorri handi bat ipini zidaten nire gelan. Ikasleek luntx bat zuten prestatua. Izugarritzko barreak egin genituen egun horretan eta faltan asko bota zidatela esan zidaten.

Orain, aldiz, 40 urte ditut. Senarrak, 42. Nagorek 18 urte ditu eta mutil lagun jator bat, Jon izena duena. Peruk 13 urte ditu, izugarri mutil guapoa dago eta, azkenik, Nereak 6 urte ditu, bitxo bat da, ez da geldirik egoten eta guztia arroxak behar du.

Hau idaztea pentsatu nuenean, helburu garrantzitsu batekin izan zen. Nire moduan jendeak bularreko minbizia badu, animatzeko. Jakiteko ez dela munduaren amaiera eta, nire moduan, beste hainbat emakume aurrera irten direla. Ehuneko laurogeita hamarra irteten da gaixotasun honetatik. Eta ez dutenei esan nahi diet bizitza ongi aprobetxatzeko, edozein egunetan joan zaitezkeela mundu honetatik eta, zerbait egin nahi baduzu, ez pentsatzeko bi aldiz: aukera baduzu, aurrera egin eta esan maite duzun jendeari maite duzula berandu baino lehen.

*Goiuri Unanue Arruabarrena*



*Maria Arruti*


# Maddi

Nire maitea non ote dago?  
Beti galdetzen diot neure buruari  
zerura begiratzen dudan bakoitzean  
izarrak erantzuten didala dirudi:  
—Jarraitu zeure bihotzari!

Maite dudan azukre koxkorrak  
maiteko al nau ni?  
Nahiko nuke berak esatea niri:  
—Maite zaitut, Maddi!  
baina existitzen naizenik ere  
zoritxarrez ez daki.

*Ainhoa Illarramendi San Sebastian*





*Miren Bergaretxe*

# Maite zaitut, horixe da dena

Neguko egun ilun horietako bat da gaurkoa,  
nire logelako leihotik naiz begira.  
Begirada galdurik dudalakoan nabil,  
bihotzak zer esan duen pentsatzen.  
Askotan bihotza eta burua ez datoz bat,  
sekulako buruhaustea ematen baititu.  
Hala ere, gaur bat datoz biak,  
inoiz baino gehiago maite zaitudala konturatzen naiz,  
bertan zaude, nire etxe parean lagunekin hizketan.  
Orduan gogorarazten dut zer momentu onak igaro ditudan zure alboan,  
zer zoriontsu naizen zurekin.  
Zu ezagutu zintudan egunetik beste pertsona bat naiz,  
egunero ohetik altxatzean ispiluan begiratu eta  
pozik bizi den emakume bat ikusten dut.  
Dena zor dizut,  
zuk egin baitidazu orain naizen pertsona alai.  
Ez dut zu ez zauden mundurik imajinatzen  
zu baitzara niretzat munduaren hasiera eta azkena.  
Ez dut zu gabe bizi nahi!  
Biok elkarrekin korapilaturik bizi garen mundu hau bizi nahi dut,  
ez da horren zaila ulertzea:  
maite zaitut, horixe da dena!

*Andrea Zinkunegi*



*Maria Eixeberria*

# Apaizaren ametsa

Bizkaiko herri txiki batean bizi zen Joxe Luis, herriko apaiza. Herriko mendirik altuenetariko batean bizi zen egurrezko txabola zahar batean. Joxe Luis arraro xamarra zen apaiza izateko: oso abenturazalea zen eta festa giroa ikaragarri gustatzen zitzaion. Txikitan herriko ume bihurrienetarikoak zen. Nork esango zuen Joxe Luis bihurria apaiza sartuko zela? Herrian zerbait gertatuz gero, beti zegoen bera susmopean. Herriko apaiza oso modernoa zen. Adibidez, behin, sagardotegira joan zen bere lagun Antonio eta Pelloekin afaltzera eta, bapo jan ondoren, Bilbora joan ziren; dantza nahikoa egin eta nahikoa edan ondoren, mozkor-mozkor bueltatu ziren etxera. Herritarrek ez zuten kexatzeko arrazoirik herrian zuten apaiza gazte eta modernoarekin. Gainera, Joxe Luisi umeak ikaragarri gustatzen zitzaizkion eta umeek asko maite zuten bera, izan ere ikusten zuten bakoitzean puxikak ematen zizkien.

Behin, egunero bezala, goizeko zortzietako meza ematera jaitsi zen herrira. Herritarrek asko maite zutela kontuan izanik, Joxe Luisek mezaren ondoren esan zuen bere ametsa, puxika batzuen laguntzaz hegan egitea zela. Hori lortzeko guztien laguntza behar zuela esan zuen; izan ere, ez zuela behar adina diru, puxikez gain segurtasunerako beste gauza batzuk ere behar baitzituen.

Herritar gehienak ados agertu ziren Joxe Luisen proposamenarekin eta gehienek utzi zuten dirua elizatik irteteen zegoen otarretxoan. Hilabete pasata behar izan zuen behar adina diru lortzeko. Dirua nahikoa zuenean, bere lagun Pello eta Antoniori deitu eta Bilbora joan ziren herriko apaizaren ametsa betetzeko behar ziren gauzak erostera. Bilbon mila eta berrogeita hamar puxika inguru erosi zituzten eta baita GPSa eta walky-talkyak ere segurtasunerako. Dirua sobratu zenez, bideo kamara bat erosi zuten, inork lortu gabeko herriko apaizaren ametsa betirako grabatuta geratu zedin.

Beharrezko zituzten gauza guztiak erosi ondoren, eguna eta ordua finkatzea bakarrik geratzen zitzairen. Denbora pixka bat pentsatzen eman ondoren, asteartean arratsaldeko 8etan jartzea erabaki zuten hiru lagunek.

Larunbata zen eta hiru egun bakarrik zituzten guztia prestatzeko. Beraz, Joxe Luis, Pello eta Antonio puxikak betetzen hasi ziren segituan; izan ere, dezenteko lana zuten, herriko apaiza hegan hasteko mila puxika inguru bete behar baitzituzten. Goizeko lauetan, egun osoa puxikak bete eta bete eman ondoren, Pello, Antonio eta herriko apaiza ohera joan ziren.

Hurrengo egunean Joxe Luis, egunero bezala, goizeko 8etako meza ematera joateko jaiki zen. Mezaren amaieran herritarrei puxikak puzteko laguntza eskatu zien eta arratsaldean hogeita hamar herritar inguru gerturatu ziren herriko plazara. Denak lurtean eseri eta puxikak puzteari ekin zioten jo eta ke. Guztien artean, arratsaldeko 7:30ak aldera amaitu zuten puxikak puzten. Gainera, herritarrek Joxe Luis deskantsatzera bidali zuten; izan ere, egun bat bakarrik falta zen egun handia iristeko.

Herritarrez gain, Udalak ere laguntza eskaini dio herriko apaizari; izan ere, Joxe Luisen erokeria honi esker, jende ugari gerturatuko zen herrira. Herriko apaiza, bere etxe aurreko belarditik abiatzekotan zenez, Udalak txosnak jarri zituen, jende asko espero baitzen eta dirua irabazteko horrelako aukerak ez zituzten egunero eskuartean izaten.

Iritsi zen, azkenean, egun handia eta Joxe Luis 8etako meza ematera irten zen etxetik. Ordurako bere etxe aurreko belardian jende mordoa zegoen. Batzuk eguzkia hartzen, besteak kartetan jolasten... baina denak herriko apaiza hegan ikusteko irrikatan.

Meza amaitu zenean, herritarrek herri bazkari bat prestatu zuten Joxe Luis ohartu gabe. Herritar gehienak bildu ziren bertan: 120-130 pertsona inguru. Bazkaria amaitu ondoren, giro polita jarri zuen musika talde bat hasi zen jotzen. Ez zen inor geratu mahian eserita, denak dantzan zebiltzan. Lehenengo arin-arina, gero fandangoa eta azkenik kalejira. Arratsalde osoa dantzan eman ondoren, arratsaldeko 6etan dena zegoen bezala utzi eta denak Joxe Luisen etxe aurreko belardira igo ziren. Belardia jendez gainezka zegoen eta denak irrikatan zeuden Joxe Luis, herriko apaiza, hegan ikusteko.

Herritar guztiak Joxe Luisen zain zeuden bitartean, Joxe Luis bere etxera joan zen, dutxa eder bat hartu, hegan egiteko arropa egokia jantzi eta, beti bezala ileak ongi orraztu ondoren, irten zen herriko apaiza etxetik. Belardiko jende guztia oihuka eta txaloka hasi zitzaion. Apaiza milaka puxika zeuden lekuraino hurbildu zen eta, segituan, Pellok eta Antoniok globoak lotu zizkieten. Pixkanaka, apaiza gero eta arinagoa zen. Nahikoa denbora eman ondoren, azkenean lortu zuten apaiza hegan jartzea. Bazihoan Joxe Luis herriko apaiza gora eta gora, mendebaldetik jotzen zuten haizeak pixkanaka albora zeramala. Joxe Luisek ez zuen seinalerik ematen, baina ez zen inor izutu, herriko apaiza oso txantxazalea baitzuten eta ziur zeuden denak haren txantxetako bat zela. Baina, pixkanaka, apaiza gero eta txikiago ikusten zen, gero eta txikiago, oraindik txikiago... ikusten ez zen arte. GPSak ez zien seinalerik ematen eta Joxe Luisen berririk gabe geratu ziren momentu batetik bestera.

Ordu pare bat eman zuten herriko apaizaren bila, baina ez zen inon haren arrastorik ageri. Azkenean, ertzaintzari abisatu beharra izan zuten. Haiek segituan hasi ziren Joxe Luisen bila: helikopteroak, itsasontziak, autoak... erabili zituzten, baina ez zen apaiza moderno eta txantxazalearen arrastorik ageri.

Baina, hiru egun beranduago, Getxoko jubilatutako hondartzatik eguneroko buelta ematen ari zela, milaka puxika ikusi zituen. Segituan ertzaintzari dei egin zion eta bost minutu baino lehenago bertan ziren. Oraingoan ez zuten zorte handirik izan; izan ere, puxikak bakarrik aurkitu zituzten, ez zen bertan apaizik ageri. Hiru edo lau puxika bakarrik zeuden osorik, beste guztiak lehertuta zeuden; horregatik, ertzaintzak Joxe Luisek lehertuko zituela eta bera ur azpian egongo zela pentsatu zuten. Segituan, urpekariak sartu ziren urpera, gorpua aurkitzeko asmoz, eta gau eta egun eman zuten, baina orduan ere ez zuten zorterik izan.

Ertzaintza Joxe Luisen bila zebilen bitartean, apaizaren herrian herritarrak burua altxa ezinik zebiltzan. Joxe Luis desagertu eta hurrengo egunean, apaiz berri bat etorri zen herrira; ez zen Joxe Luis bezain umoretsu eta modernoa, baina herritar guztiek zekiten ez zutela bera bezalakorik aurkituko.

Hirugarren eta laugarren egunean ere ez zuten pistarik aurkitu; beraz, Joxe Luisen herriko alkateak hitzaldi bat eman zuen, laguntza eskatuz. Hitzaldi hura mundu osoan zabaldu zen. Hala ere, denbora pasa eta apaiza ez zen inon ageri.

Urte asko pasa dira dagoeneko hura gertatu zenetik eta Joxe Luisen gorpua ez da inondik ageri. Inork ez daki Joxe Luis hilda dagoen, zeruak irentsi duen edo beste herriren bateko apaiza den. Urte asko pasa diren arren, herritarrek ez dute Joxe Luis ahaztu. Gainera, herriko plazaren erdian Joxe Luisen oroigarri bat jarri zuten desagertu zen urtean eta bertan dago oraindik, bere puxika eta guzti. Orain herritar askok, umeak zirenean Joxe Luisek emandako puxiken truke, loreak eta puxikak jartzen dituzte oroigarriaren ondoan.

*Aurora Makazaga Urdangarin*



*Lore Iburguren*

# Nire bizitzako zati ilunena

Gaur kontatuko dudan istorio hau, orain dela 15 urte gertatu zitzaidan gauza bat da. Oso istorio luzea da, eta gogoratzen dudan bakoitzean beldurra sartzen zait gorputz osoan. Gertatutakoaren ondorio larriak ditut gaur egun.

Orain dela 25 urte, 16 urteko neska lirain eta jator bat nintzen. Lagun asko nituen eta kirola ere gustuko nuen. Arraunean ibiltzen nintzen, eta estropada asko jokatzen nituen, eta beti aurreneko hiru postuetan geratzen ginen. Hala ere, istorioak ez du arraunarekin zer ikusirik. Mutil kontutan ez nintzen arrakasta handia nuen neska; baina, noizean behin, eduki nuen gustuko nuen mutila nire alboan, berak ere maite zidala esanez. 16 urterekin maiteminduta nengoen, mutil hura niretzako nire bizitza zen.

Egun batean pentsatu nuen berari zerbait esateko garaia zela. Ostiralean Andoniri mugikorretik mezu bat bidali nion, geratzeko esanez. Gauean geratu ginen, nik hurrengo egunean estropada nuen eta, beraz, goiz joan behar nuen ohera. Ordubete hitz egiten egon ondoren, maite nuela esan eta, musu bat eman ondoren, etxera joan nintzen.

Hurrengo egunean estropadan lehena egin genuen eta oso pozik ginen: Gipuzkoako txapelketa bat zen. Gauean kalean afaldu genuen, baita Andonirekin ere. Denak etxera joan behar zutela esan zuten eta ni eta Andoni bakarrik geratu ginen. Eskutik heldu eta esan zidan berak ere asko maite ninduela eta ea bere neska izan nahi nuen. Nik baietz erantzun nion. Oso gustura nengoen, eta, berarekin egon ondoren, etxera joateko ordua iritsi zen eta joan egin nintzen. Etxerantz nindoala, norbait nire atzetik zetorrela sumatu nuen, baina ez nion kasurik egin. Bat-batean puntadun zerbait sumatu nuen nire bizkarrean: labana. Niri segika zebilena zen, bortxatu egin nahi zidan; esaten zidan berari kasu egiteko eta lehenago bukatuko genuela. Azkenean, mutikoak nahi zuena lortu zuen eta bortxatu egin ninduen. Joan zenean, negarrez hasi nintzen eta ez nuen indarrik etxera bueltatzeko. Handik gutxira, andre bat pasa zen nire albotik eta, lurrean botata ikusi ninduean, niregana etorri eta etxera joaten lagundu zidan. Etxera iritsi bezain pronto, nire amari kontatu nion dena. Hurrengo egunean ertzaintzara joan ginen; baina, ez genuenez frogarik, ez ziguten kasurik egin.

Hurrengo egunean, etxean telefonoak jo zuen eta korrika batean jaiki nintzen. Amak hartu zuen; hitz egiten amaitu zuenean, niregana etorri eta esertzeko esan zidan. Ertzainek esan zioten ni bortxatu ninduen Andoni zela eta jadanik eraman zutela. Salatu zuena bortxatu zidan gauean lagundu zidan emakumea zen. Negar batean hasi nintzen eta ezin nuen gehiago. Nik maite nuen pertsonak egin ote zidan ori? Huraxe zen nire galdera. Nik uste nuen bera ez zela, eta berari galdetu nahi nion. Berarengana joan nintzen bisita bat egitera, eta, berarekin hitz egiten egon ondoren, galdetu eta esan zidan bera ez zela izan. Nik sinistu egin nion. Baina ez nuen oso garbi. Etxera lagundu zidan andrearengana joan nintzen. Jaione izena zuen, eta galdetu nahi nion ea nolatan



zekien Andoni izan zela. Bere etxera joan, galdetu eta erantzun egin zidan. Esan zidan dena ikusi zuela eta lehenago nirekin egon zen mutila izan zela.

Bi iritzi nituen, baina ez nekien zer pentsatu. Ez nintzen gai kalean bakarrik egoteko, ezta etxean ere. Egun batean nire amak eta aitak kalera joan behar zuten eta, orduan, ni aspaldiko partez lagunekin atera nintzen. Ailegatu nintzenean, zerbait arraroa sumatu nuen lagunaren artean: ez zidaten lehen bezala tratatzen. Gure koadrilako beste bat iritsi zen beranduago, eta zerbait ezaguna zuela iruditu zitzaidan; ez nintzen gogoratzen zer zen, ordea. Gauean pentsatzen egon nintzen, eta gogoratu egin nintzen. Bortxatu zidan gaueko mutilaren ahotsa zen. Eta, kasualitatea, Jaione bere ama zen.

Nire lagunik onena jadanik ez zen nire laguna, lagun gutxi nituen, eta inork ez zidan kasurik egiten. Bakarrik nengoen. Egun batean botaka hasi nintzen, eta amak medikuarengana eraman ninduen. Medikua ni kanpora ateratzeko esan zuen, amarekin hitz egiteko. Atera zenean, amak harridura aurpegia zuen, eta esan zidan haurdun nengoela. Ezin nuen sinetsi. Baina horrela zen.

Handik aurrera gauzak askoz ere okerragora egin zuten. Lagunik ez nuen, arrauna utzi behar izan nuen, ikasketak ere okerrera joan ziren, eta, gainera, nire azken urtea zen, haurdun bainengoen eta ezingo nuen nire ikasketak aurrera atera ume bat nuela. Andoni kartzelatik atera nahi nuen, eta benetako mutila salatu, baina ez nuen frogarik; beraz, ez zidan inork sinetsiko.

Uste nuen gauzek ezin zutela okerragora joan, eta amak psikologo batengana eraman ninduen. Esan zidan nire beldurrak gainditu behar nituela, baina nik ezin nuen hori egin. Nire buruaz beste egitea pentsatu nuen egun batean. Etxean bakarrik gertatzeko zain nengoen. Eguna iritsi zen, nire ama eta aita mendian buelta bat ematera joan ziren, eta ni bakar-bakarrik nengoen. Sukaldera joan, labana hartu nuen eta esku muturrean ebaki bat egin nuen. Ohean etzan eta bertan egon nintzen. Hil zorian nengoela, ama eta aita iritsi ziren, eta, nire egoera ikusita, ospitalera eraman ninduten. Bertan odol asko sartu zidaten, asko galdu bainuen. Esan zidaten umea ondo zegoela oraindik eta, beraz, ez nintzela asko egongo ospitalean sartuta. Nire lagunei esan zitetenean gertatu zena, esan zuten ez ziela batere inporta. Eta horrek izugarritzko pena eman zidan, beraientzako ni bizirik egotea edo ez berdina zelako.

Aste bat pasa ondoren, etxera itzuli nintzen. Inoiz baino okerrago nengoen, eta amak psikologoarengana eraman zidan segituan. Sei hilabete pasa ondoren, azken hilabetea falta zitzaidala umea izateko, psikiatrak esan zuen sendatuta nengoela eta ez nuela gehiago joan behar. Baina nik banekien oraindik ez nengoela ondo. Eta ziur nuen ez nuela nahi gehiago bizi. Etxean dena prest zegoen umearentzako. Nik ez nuen nahi umea eduki; gainera, ez nekien zein zen aita. Aspaldi erabili gabeko galtza batzuk aurkitu nituen ohe azpian, eta poltsikoan paper bat aurkitu nuen. Bortxatu zidan mutikoaren ohar bat zen. Esaten zuen zerbait esaten banuen, nireak egin zuela, eta bertan bere sinadura jarrita zegoen. Amari erakutsi eta ertzainengana joan ginen segituan. Andoni askatu eta beste mutikoa, Iñaki, atxilotu zuten. Ni gustura nengoen, alde batetik,


Andoni kalean zegoelako, baina zortzi hilabetez egon zen kartzelan, eta ez nekien oraindik maiteko ninduen edo ez. Berarekin hitz egin nahi nuen, baina ez zidan kasurik egiten, eta, orduan, nire buruaz beste egitea pentsatu nuen. Baina oraingoan beste modu batean eta inork ikusten ez ninduen toki batean.

Herritik pixka bat urrun zegoen zubi batetik botatzea pentsatu nuen. Bertara igotzeko, arroka batzuetatik igo behar zen eta oso arriskutsua zen. Igotzen ari nintzela, irristatu egin nintzen eta, buruan kolpe handi bat hartu ondoren, lurrera erori eta bertan geratu nintzen. Nire bila orduak pasa ondoren, ertzainak aurkitu egin ninduen. Umea hil egin zen, eta ni aste batez ospitalean egon nintzen.

Nire lagun denak etorri ziren bisitatzera, baita Andoni ere. Sendatu ondoren, arrau-nean hasi nintzen, eta atzean utzitako ikasgai denak gainditu nituen. Dena ondo zegoen, eta oso pozik nengoen.

Gaur egun Andoni da nire senarra eta berarekin bizi guztia egoteko prest nago. Munduan gehien maite dudana pertsona da.

*Judith Segurola*



Janire Arrondo

# Susmoa

Ohean bueltaka nenbilen trafikoaren zaratagatik ezin nuelako lorik egin. Zer egin ez nekiela, ahoz gora jarri nintzen sabaiari begira. Erlojuaren proiektoreak 4:45 zirela erakusten zuen; laster lanera joan beharko nuen. Asteazkenero bezala goizeko zazpietatik arratsaldeko hirurak arte taxian jendea hemendik hara eramaten ibili beharko nuen. Lan aspergarria benetan, baina, nire ikasketa mailarekin lortu nezakeen lanik onenatarikoa zen. Behintzat soldatarekin nahiko ondo moldatzen nintzen alokairua eta fakturak ordaintzeko. Halere, ez nuen inolako aberastasunik, bizitzeko behar nuen minimoarekin konformatzen nintzen. Izan ere, txikitatik zorte txarrekoa izan nintzen, beraz, konformista izaten ikasi nuen; zer egin nezakeen bestela?

Gaztaroan ikasketetan gaizki nenbilen. Hori dela eta, 16 urterekin DBH bukatu bezain laster, nire aitaren lantegian lanean hasi nintzen. Baina, bizimodu hura gorroto nuenez, etxetik alde egin nuen.

Hasieran, Pello izeneko lagun batekin Australiara joan nintzen. Bertan bost hilabete igaro genituen oporretan; ia lanik egin gabe eta hondartzan surfa egiten. Gero, Estatu Batuetara joatea erabaki genuen.

Kaliforniara iritsi ginenean, pisu ñimiñoa alokatu genuen eta lanean hasi ginen. Dena ondo zihoala zirudien nik lana galdu nuen arte. Arazo ekonomikoak izan genituen eta haserretu egin ginen. Ondorioz, bakoitza bere kabuz joatea pentsatu genuen.

★★★★★

Orduan, New Yorkera joan nintzen bizimodu berri bat hasteko asmoz. Zorionez, pizzeria batean lana lortu nuen. Horrela, egunean zehar pizzak banatzen nituen eta, iluntzean, leku berriak bisitatzen nituen. Gainera, pizzariako arduraduna oso jatorra zen eta beti bazkaltzera gonbidatzen ninduen. Baina, egun batean despeditu egin zuten eta ordezkoko arduradun bat etorri zen. Hau ez zen batere adiskidetsua, alderantziz, oso zakarra, zorrotza eta desatsegina zen. Lanean hasi zen lehenengo egunetik jo eta ke lanean ibiltzera derrigortu ninduen eta nik ezin nuen tratu txar horiek jasan.

Pertsona horrek ez zituen langileen eskubideak errespetatzen. Izan ere, lanaldi jarraitua egiten nuen: eguerdiko 12etan hasten nintzen eta gaueko 11etan bukatzen nituen lanak.

Gau batean Chinatown aldera joan nintzen, pizza batzuk eramatera. Zona hura ez nuenez ezagutzen, zail xamarra egin zitzaidan paperean idatzitako helbidea bilatzea. Azkenean, Hu-jong-wang kalea aurkitu nuen, baina etxebizitzak egon beharrean, gara-jeak zeuden. Zerbait arraroa sumatzen nuenez, motoa alde batera utzita, kalea aztertu nuen. Errepidea zuloz beteta zegoen eta ez zegoen farolarik. Galdu egin ote nintzen?

Bat-batean, garaje baten atea ireki zen eta auto bat abiada bizian irten zen, ihesi joango balitz bezala. Ni oso kuxkuxeroa nintzenez, motoa hartu eta garajera hurbildu nintzen. Ez nuen ezer ikusten, beraz, argia piztu nuen.

Une hartan ikusi nuena ikaragarria izan zen. Garajeak harategia zirudien. Izan ere, pertsona baten gorputz zatiak sabaitik zintzilikatuta zeuden. Goraka begiratzean, biktimaren bihotza ikusi nuen eta odol tanta bat kopetara erori zitzaidan. Orduan, usain higuingarriak zorabiatzea eragin zidan. Nire onera itzuli nintzenean, garajetik atera eta telefono kabina baten bila hasi nintzen poliziari deitzeko.

Bidean, ikusitakoaz behin eta berriz oroitzen nintzen. Ezin nuen sinetsi. Nork egin zezakeen horrelakorik? Gaiari bueltak ematen nizkion, ulertezina iruditzen baitzitzaidan.

Bat-batean, Hu-jong-wang-eko auto bera ikusi nuen. Orduan, detektibe baten modura matrikularen zenbakia apuntatu nuen eta autoaren jabea itzuli arte zain geratu nintzen. Horrela, gaizkilearen aurpegia eta itxura ezagututa, salatu ahal izango nuen.

Bitartean, motoan neraman pizza jatea otu zitzaidan, goseak akabatzen bainengoen. Bestela ere, ez nuenez, arduradunaren ustez, pizza entregatu, pizzeriara itzultzean neure diruarekin ordaindu beharko nuen. Bi aldiz pentsatu gabe, kaxa ireki eta pizza jateari ekin nion. Egarri handia jarri zitzaidanez, pizzarekin batera eraman behar nuen freskagarri bat edan nuen. Coca-Colaren kafeinak pixka bat esna irauten lagundu zidan. Halere, laster logalea jarri zitzaidan. Beraz, gertu zegoen pub batera kafea hartzera joatea pentsatu nuen. Pizza banatzailearen soldatarekin behintzat noizbehinka luxu txikiak hartzea banuen.

Barrura sartu nintzenean, leihoaren ondoan zegoen mahaian eseri nintzen. Bertatik kalea eta bereziki automobila ederki ikusten nuen, parez pare bainengoen. Zerbitzaria etortzean, Pello, nire lagun-mina, zela ohartu nintzen. Ederra ezustekoa! Aho zabalik gelditu nintzen. Asko poztu nintzen elkar ikustez.

Taberna huts xamarra zegoenez, Pellok segituan kafea prestatu zuen eta berriketan hasi ginen. Pello oso berritsu zegoen; ni, aldiz, isila. Ez nuen automobila begi bistatik kentzen. Oso kezkatuta nengoen, ez nion Pellori ia jaramonik egin. Denbora guztian buruarekin baiezkoa egiten nuen, beste ezer esan gabe. Jada bi ordu pubean zelatan pasa nituen eta oraindik ez zen autoaren jabea azaldu. Ondorioz, gaizkilea aurkitzeko esperantzak galdu nituen.

★★★★★

Gauerdian, puba itxi behar zutenean, kalera joan ginen. Pello berriro hizketan hasi zen:

—Buelta bat ematen diagu alde zaharretik?

—Ez. Berandu duk eta etxera itzuli behar diat.

—Non bizi haiz?

—Hemendik urrun.

—Badaukak nire etxean lotan gelditzea nahi baldin baduk. Hementxe bizi nauk.

—Ez. Eskerrik asko. Bihar lana zeukaat.

—Igandean? Lana?

—Bai.

—Zertan egiten duk ba lan?

—Pizzak banatzen, baina uste dut despeditu egin nautela.

—Beno, lana behar baduk. Pubean barran zerbitzatzeko pertsona bat behar diagu. Nahi baldin baduk, etor hadi hurrengo astean nagusiarekin hitz egitera. Soldata ona ematen ditek, ordutegi ona duk eta eskupeko asko ematen ditek. Zer iruditzen zaik?

—Ez zekiat. Deituko diat zer edo zer erabakitzen dudanean.

—Ederki.

—Pello, oso gustura egon nauk berriketan, baina orain joan egin behar diat.

—Nahi al duk etxera eramatea? Auto berria zeukaat.

—A, bai!

—Ikustek hor aurreko BMWa? Nirea duk.

Aho bete hortz gelditu nintzen. Egoera oso nahasia zen. Sinestezina zirudien gaizkilea eta nire lagunik onena pertsona bera izatea. Pello ez zen inondik inora hiltzaile odolkoia bat. Alderantziz, bera begetarianoa zen eta euli bat hiltzeko gai ere ez zen. Nola egingo luke halakorik? Ezinezkoa!

Pellok harro-harro ibilgailuaren ezaugarriak deskribatzen zituen bitartean, nire buruari esaten nion: Ez da posible! Psikopata batekin hizketan ari naiz. Salatu egin beharko nuke, baina, ezin diot hori egin adiskide bati, ez naiz salatari bat. Halere, ezin dut aske utzi horrelako munstro bat. Hobe dut poliziari gertatutakoaren berri ematea. Bestalde, erruduna dela baieztatzeko ez dut frogarik, auto berdina edukitzeaz gain. Behar bada krimenaren lekuko izan da. Egia esan, arazo hau oso korapilatsua eta konplexua da eta ez dakit zer egin. Ondorio batzuetara iristeko, gertatutakoa ondo aztertzea komeni zait eta, horretarako, Pello espiatu beharko dut. Nire helburua betetzeko, denbora osoan Pelloren ondoan egon beharko dut bere pausoak gertutik jarraitu ahal izateko, baina, bera konturatu gabe, jakina! Plana lehenbailehen burutu behar dut azkar martxan jartzeko eta buruhauste hau konpontzeko.

\*\*\*\*\*

Gau hartan zelataritzan hasi nintzen; Pellori etxera eramatea eskatu nion. Horrela, autoaren barnealdea ikertzeko aukera izan nuen, baina ez zegoen odol edo bestelako aztarnarik.

Hurrengo egunean, pizzeriara joan nintzenean, arduradunak kalera bota ninduen. Sekulako errieta egin zidan, baina niri ez zitzaidan axola, Pellorekin batera pubean lanean hasiko bainintzen.

Astlehenean, Pellori deitu nion:

—Hello! Who is it? —esan zuen Pellok, ingelesez, telefonoa hartzean.

—Hi, Pello! Neu nauk —erantzun nion.

—Apa! Zer moduz?

—Ba... gaizki. Lanetik bota naitek.

—Zeba?

—Pssss... Pizza batzuk ez ditudalako entregatu, besterik gabe.

—Lasai, nire pubean lana lortuko duk eta. Gaur nagusiarekin hitz egingo diat eta geroxeago deituko diat, bale? Ez hadi horretaz arduratu.

—Eskerrik asko. Horretaz gain, beste mesede bat eskatu behar diat: ba al zeukaat hire etxera joatea egun batzuk bizitzera? Denboralditxo bat besterik ez, pisua lortu arte izango duk. Egon lasai, ez da eta aurreko pisuarekin bezala gertatuko eta —eskatu nion aspaldiko kontuak birgogoratu.

—Hori ahaztuta zio. Etor hadi nahi duan denbora pasatzera.

—Pello, mundiala haiz! Eskerrik asko.

—Ez horregatik. Noiz etorriko haiz?

—Gaur arratsaldean joango nauk.

—Gauzak ekartzeko laguntza behar duk?

—Ez, ez. Gauza gutxi dizkiat eta autobusean edo metroan joango nauk.

—Orduan, gero ikusiko garenez, etortzen haizenean esango diat lanarena.

—Bale, agur! —baieztatu nuen.

—Gero arte! —esan eta moztu egin zuen.

Jarraian, mailetak egiteari eta etxea txukuntzeari ekin nion, lehenbailehen etxea uzteko asmoz.

\*\*\*\*\*

Pelloren etxera iritsi nintzenez inor ez zegoenez, lapurra bezala alfonbrako giltzak hartu nituen eta atea ireki nuen. Sartu nintzenez, liluraturik gelditu nintzen. Pelloren etxea erraldoia zen, ez nire teilatupeko etxe txikia bezalakoa. Horrelako gaztelu bat edukitzeko, Pellok diru mordoa irabazi beharko zuela pentsatu nuen. Agian, mafioso edo trafikante bihurtu zen. Beno, ideia horiek nire irudipena bakarrik ziren.

Bat-batean, hotzikara bat sentitu nuen. Norbait etxera sartzera zihoala sumatu nuen. Segidan, atea kirrinka egin zuen. Etorrina nor ote zen ikusteko asmoz, sarrerara hanka puntetan hurbildu nintzen. Nire ezkutalekutik beisboleko bate batekin erasotzeko prest nengoenez, Pello zela ikusi nuen; beraz, batea utzi eta ongi-etorria ematera joan nintzen.

—Kaixo!

—Ui! Hemen hago eta, uste nian beranduago iritsiko hintzela. Noiz iritsi haiz?

—Orain dela ordu laurden bat ailegatu nauk. Maletak salan utzi dizkiat eta oraintxe pubera joan behar nian hire bila, baina hi etorri haiz lehenago.

—Eta nola sartu haiz?

—Alfonbrapeko giltzarekin.

—Ai! Lekuz aldatu beharko diat, bestela lapurrak sartuko dituk noizbait. Beno, oraingoz giltzak hik hartu itzak, hemen bizi haizen bitartean beharko dituk eta.

—Bale.

—Beno, zer iruditzen zaik afaria prestatzen badugu eta etxea erakusten badiat?

—Ederki.

Gela guztiak ikusi ondoren, afaldu eta zuzen-zuzenez ohera joan nintzen, leher eginda bainengoen.

\*\*\*\*\*


Hurrengo egunean goizean goiz esnatu nintzen Pellorekin batera korrika egitera joateko. Pello oso bizkor zebilenez, bere erritmoari jarraitzea zaila egin zitzaidan. Halere, oso gustura ibili nintzen auzoa ezagutzen.

Etxera itzultzean, Pellok postontziko gutunak hartu zituen eta, dutxatzen zen bitartean, detektibe gisa, susmagarrienak irakurri nituen. Karta bat anonimoa zen, ez nekien zeinek idatzi zuen; baina, letraren itxuragatik, neska zela esango nuke. Bertan hauxe esaten zuen:

*We'll meet at midnight in the bridges' park.*

Hau da: Gauerdian zubiko parkean gelditzen gara. Pellok mezua ez ikusteko, bera komunikatzen atera baino lehen poltsikoan gorde nuen. Horrela, gau hartan ezezagun misteriotsuaren hitzordura neu bakarrik joateko aukera izango nuen.





*Aurora Makazaga*

Laneko aurreneko eguna ez zen batere gogorra izan. Nagusiak, besterik gabe, galdeketa motz bat egin zidan nire esperientzia, ikasketak, jatorria eta ingeles maila ezagutzeko.

Entrebistaren ondoren, Mr. Jamesek nire eguneroko lana azaldu zidan; baina, hasiberria nintzenez eta ez zegoenez ia bezerorik, lana egin ordez, Pello zelatzen egon nintzen.

\*\*\*\*\*

Zortzietan, lana amaitzean, lanpostu berria nuela ospatzeko, Pello jatetxe dotore batean afaltzera gonbidatu nuen. Gero, taberna batera joan ginen, pixka bat edatera. Nik mozkor itxurak egiten nituen Pellok edan zezan. Horrela, bera konturatu gabe, gauerdian zubiko parkera joan ahal izango nuen.

Azkenean, Pello mozkor-mozkorra zegoen eta etxeraino arrastaka eramane behar izan nuen. Bere logelan ohean etzanda utzi nuenean, bere beisboleko batea eta autoko giltzak hartu nituen Bridge's parkera garaiz iritsi ahal izateko.

Maletategian beisboleko batea sartzen ari nintzenean, pauso batzuk aditu nituen. Norbait niregana gerturatzen ari zen. Orduan, bi aldiz pentsatu gabe, maletategian sartu nintzen ezkutatzeko. Jarraian, pertsona hori automobilean sartu zen eta motorra martxan jarri zuen. Pello zela pentsatzen nuen, baina oker nenbilen. Mr. James pubeko nagusia zen. Baina nola eduki zitzakeen Pelloren autoaren giltzak? Lapurra izango ote zen?


Bat-batean, boteak ematen hasi nintzen. Errepidea zuloz beteta zegoela zirudien, Chinatownen bezala. Horrek esan nahi zuen Mr. James benetako gaizkilea zela eta, Pelloren autoa garajetik irteten ikusi nuenean, berez gidaria Mr. James zela eta ez nire laguna.

Gero, garajeko ate bat irekitzen zela entzun nuen eta autoa gelditu egin zen. Orduan, maletategitik ateratzeko aprobetxatu nuen. Isil-isilik irten nintzen batearekin eta Mr. Jamesi buruan jo nion. Konortea galdu zuenez, hankak eta besoak lotu nizkion eta maletategian sartu nuen. Atera ixtera nindoanean, bere onera itzuli zen eta pistolarekin belaunean tiro egin zidan. Jarraian, lurrera erori nintzen eta Mr. Jamesek pistola kope-tara destatu zuen. Nik, beldurrez akabatzen nengoenez, begiak itxi nituen. Hori zen nire amaiera: buruan tiro bat jasotzea eta gero hiltzaile odolko hark txiki-txiki egitea. Baina, gakoa sakatzera zihoanean, bala batek bere bihotza zeharkatu zuen. Atzera begiratu nuen eta Pello zela ikusi nuen.

—Ondo al hago? —galdetu zidan.

—Belaunean tiro egin zidak, baina bizirautea lortuko dudala uste diat —erantzun nion umore onez nire beldurra ezkutatu nahian.

—Beno, anbulantziari eta poliziarri deituko zieat orduan.



*Eneritz Muşika*

—Itxaron, nola egin duk hori? Nola jakin duk hemen nengoela? Hi mozkorra hengoan eta... Pufff! ez diat ezer ulertzen.


—Lasai, agente sekretua nauk eta mafian infiltratuta nagok. Horregatik, neu ere Mr. Jamesi jarraitzen ari ninduan.

—Brometan ari al haiz?

—Ez. Egia duk, baina ahaztu ezak kontu hau. Amets gaiztoa bukatu duk eta.

*Ainhoa Goenaga Miña*

*Elene Tamayo*



# Stalingradoko heroia

## **Berlin (Alemania), 1945eko maiatzak 7**

Amaitu da dena. Azkenik, gure ahaleginek eta anai galduek zerbaitetarako balio izan dute: Alemania nazia erori da. Neure aurrean daukat Reichstag eraikina, faxisten azken gunea, gure arazo guztiak hasi ziren lekua. Teilatuetan ez dira ikusten jada esbastiken ikurrinak, erreak izan dira denak. Haien ordeztan, gure aberriarenak izan dira ipiniak, erai-kin guztietan, baita Reichstagean ere, inoiz ikusi dudak handiena, gorria, bere urre koloreko mailu eta igitai eta guzti. Moskun baino ez da horren ikurrin handirik ikusten, gure hirian, beno, hau ere gure hiria da orain. Gerra amaitu denez gero, bakealdi luze baten premia dut, eta hemen bezala bizi izan ditudan gauza izugarriez ahaztekoa ere bai. Neuk baino odol, sarraski eta hondamendi gehiago ikusi duenik ez dago.

Leku askotan izan naiz, Siberiako baserritar xume bat baino ez naizen arren, baina soldadu bilakatu nintzen, Errusia inbaditu zutenean; etxetik joan, ordea, gure lurak kolektibizatu zituztenean. Stalinen aginduz, dena herriarena zen, baita lurak ere, SESBena (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna), eta zeharo behartsuak egin ginen, familia osoa ezer gabe geratuz. Aitak askotan esaten zidan: Zoaz ekialdera, Dimitri! Moskun edo Stalingradon lana egongo da zu bezalako gazte batentzat. Ama eta ni geratuko gara, zaharregiak gara zurekin joateko, negua gogorregia da guretzat, bidaiatzeko. Zoaz.

## **Mosku (Errusia), 1940ko azaroak 4**

Moskura joan nintzen, amaren azken sosekin: 120 errublo baino ez. Ez nuen asko iraungo kale ilun eta hotz horietan nuen diru apurrarekin, beraz, gela baten bila abiatu nintzen kaleetan barna, elurrak pixkanaka dena zuritzen zuen bitartean. Gaua zen, eta ez zebilen inor kalean, hotz egiten zuen, eta, nekeak jota, ia ezin nuen ibili ere egin. Azkenik, azken ahaleginak egin, eta elur kapa bigun baten gainean erori nintzen ziplo.

Oraindik zentzumenak esna nituen, eta ez nintzen lo geratu, norbait niregana etorri zen arte. Ez nion aurpegia ikusi, eta oso ahul nengoen mugitzeko. Bat-batean, bi eskuez berokiko lepotik heldu, eta jaso egin ninduen lurretik, sorbaldan jarri, eta haren etxera eramanez ninduen. Ez nintzen esnatu, hurrengo goizerarte. Ohe batean nengoen, eskuinetara liho bat zuen gela batean. Jada argitu zuen, eguzkiak itsu uzten ninduen leihotik begiratze hutsarekin. Elurraren erruz zen, bart gelditu gabe erruz egin zuen elurra, eta eguzkiaren islak min egiten zuen goizean. Zaratak entzuten ziren gelatik kanpo eta norenak ziren ikustera joan nintzen.

Nor ote zen? Agian bart salbatu ninduen; dena dela, eskerrak eman nahi nizkion egin zuenagatik. Korridore luze bat zeharkatu nuen, pare bat gela zituelarik albo banatara, eta amaieran, egurrezko eskailera zahar bat zegoen. Lehen begiratuan, pauso bat



*Idoia Etxabe*

eman eta hautsi egingo zelakoan nintzen, baina horren orde, zarata izugarri bat baino ez zen sortu, etxe hartako beste guztiek entzuteko modukoa. Eskailerak jaisten amaitu nuen, eta beheran nire zain zegoen emakume bat agertu zen.

Nengoen lekutik begiratuta, ez zirudien beste munduko ezer; baina, gerturaten nintzelarik, zer nolako edertasuna neukan begien aurrean konturatu nintzen. Ez zen garaia, baina bai xarmanta. ile gorri luzea zuen, sorbaldetan behera, eta egun osoa hari begira pasatzeko moduko begi argiak. Sudurra eta ahoa txikiak zituen, eta aldakak ezin lirainagoak. Goitik behera begiratu nuen, jaisten nintzen bitartean, nola begiratzen nion konturatu zen arte. Lotsaturik geratu nintzen, zer esan ez nekielarik, eta totalka hitz egin nion, azkar-azkar, zer nioen neuk ere jakin gabe:

—E, e, e, egun annndereño, Dididimitri nauzu, Dimitri Kovvloska, Ekaterinburgekoa. Urte askotarako —beldurrak airean nengoen.

—Anastasia Tationova, urte askotarako. Jakin liteke zer egiten zuen hain urruneko mutilak gaueko ordu horietan Moskuko kaleetan barrena? —zioen ahots ezti batez, nitaz barrezka.

—Iritsi berria naiz, eta ez dut inor ezagutzen bertan, lan bila nabil, lagun nazakezu?

—Eser zaitez! —esan zidan aulki bat eskainiz sukaldean—. Neuk ezin zaitut horretan lagundu, baina agian etxeakoandreak bai. Sonia!

—Bai? —zioen, errenka, ahots ahul batekin, izan ere Sonia andrea zaharra zen, alarguna, bere senarra hil egin zuten 1917ko iraultzan. Geroztik, komunista petoa zen.

—Ekarri tea eta opilak, gure gonbidatua goseak izango da.

—Segituan —eta gelatik irten zen, gosaria prestatzeko ur bila.

—Azukrerik gabe, faborez —behartsu nintzenez, ohitua nengoen te soila edaten—. Esadazu, ze lan izan dezake niretzat?

—Sonia zaharra da, eta neu baino ez nau. Pare bat kale harantzago fabrika bat dago; ziur naiz, han irabazten duzunarekin bere etxeako gelaren batean bizitzen utziko dizula, baita jaten eman ere. Neu ere horrela bizi naiz, irabazten dudanarekin —bazirudien aspalditik ezagutzen zirela.

—Beno, hemen duzue tea —Sonia pozez zirudien, etxean konpainia pixka bat iza-tea atsegin zuela ematen zuen.

Anastasiak tea mahai gainera iritsi zela konturatu orduko, jateari ekin zion, bi egun baraurik zegoela zirudien, neuk ere gosea nuen, baina ez horrenbeste. Opiltxoerik ia hartu gabe, oso-osorik sartzen zituen ahora, eta tea trago batean edan zuen. Horren ostean, gelatik atera zen korrika, eta goiko solairuko bere gelan sartu zen. Bi minutu eskas pasa ondoren, guztiz harriturik utzi ninduen arropa batekin atera zen gelatik. Militar arropak ziren, militarrenak, Anastasia soldadua zen. Ez nuen berrehalakoan asmatuko.





*Joseba Etxezarreta*

Jantzia dotorea zen, goitik hasita, kapela biribil bat zuen, berde-marroi antzeko kolorekoa, izkinak urre kolorez jarrita, eta SESBeko ikurrarekin erdian, mailu eta igitaia. Jaka kolore berdinekoa zen, sorbaldetan galoi beltz pare batekin, eta urre koloreko botoiekin goitik behera. Pare bat poltsiko alde banatara, eta jakako lepo banatan, ikur gehiago. Galtzak ilunagoak ziren, marra gorri bertikalekin hanken kanpoko aldean. Ejertzitoko kide guztiek erabiltzen zituzten bota beltz handiak zeuzkan jantzita, hain handiak, galtzak goran gelditzen zitzaizkiola, beheko partean zimurrekin, eta goiko partean, dena zabaldua. Benetako ofiziala ematen zuen galtzak horrela jarrita.

Oraindik ez zituen botoi denak lotu, ezta gerrikoa ere. Janzterakoan, larruzko zorro dotore batean zeraman pistola ikusi nion. Arriskutsua iruditu zitzaidan, baina kontuan hartuta soldadua zela, pentsatu nuen jakingo zuela hura ondo erabiltzen eta horrek lasaitu ninduen. Dena den, ondo zeukan jantzia, pistolaz edo pistolarik gabe:

—Harriturik dirudizu —zioen berak.

—Lehenengo aldia da emakume bat soldaduz jantzita ikusten dudala.

—Kar, kar! Gaur egun gero eta gehiago daude.

—Non egiten duzu lan?

—Kremlin eraikinean —orduantxe, bai: aho zabalik geratu nintzen.

—Benetan?

—Bai. Neu naiz bertako seguritateaz arduratzen diren milaka soldaduetako bat. Behin geure jaun Stalinen gela berean egon nintzen; bertan egin nuen guardia.

—Stalinen gela berean egon zinen? Benetan?

—Bai, ohituta nago jada politikako kargu handiak ikustera Kremlinoko korridoreetan barrena: Kalinin presidentea, Kaganovich ministroa, Beria partidu komunistakoa (KGB)...

—Gustura ikusiko nituzke gure iraultzako heroi handiak —esan nuen zirrara handiz.

—Dagoeneko ohituta nago, baina baita nazkatuta ere: ezin ditut jasan neguan egiten ditudan gaueko txandak, eta ordaintzen didaten miseriarekin, diru estra irabaztea komeni zait —eta, bat-batean, mantentzen ari ginen elkarrizketa moztu, eta etxetik irten zen korrika—. Berandu noa. Galdetu Soniari lanarena. Agur!

Oraindik gosaria jateko nengoenez, jateari ekin nion, hizketaldi horren zirrarak gosea piztu zidan ikaragarri. Ez nituen Anastasiaren antzera jan opiltxoak, baina nahiko azkar bai. Tea goxo zegoen, amak egiten zidana bezalakoa, faltan botatzen nituen hura eta aita Ivan. Zertan ariko ote ziren momentu horretan? Ziurrenik ez nuen inoiz jakingo, ezta berriz ikusiko ere.

Familiako penak alde batera utzita, bizitza berri bat nuen, lana lor nezakeen, eta neska eder bat ezagutu nuen. Gauzak ondoegi zihoazen egia izateko. Beldur nintzen zerbait gerta zitekeela nire bizitzako harmonia berri hau hausteko. Izurriak, goseteak, beste gerra bat. Dagoeneko bazen gerra bat, baina alemaniarrekin bakea sinatu genuen, Polonia elkarbanatzeko; beraz, nola gerta zitekeen horrelakorik?

Soniari galdetu nion fabrikan lana egitearena, eta bere etxean geratzearena. Berak irribarre batez baietz esan zidan, eta fabrikarako bidea erakutsi zidan. Anastasiak esan bezala, bi kale harantzago zegoen, metroko geltokitik gertu. Fabrika handia zen, metalaz eginak bai kanpotik bai barrutik. Ate erraldoi bat zeukan, jo bezain laster irekia izan zitzaidana. Mutiko gazte batek, 15 urte baino gehiago izango ez zituenak, ireki zidan. Arduradunatik galdetu nion, lana eskatzeko, eta berak korrika batean ekarri zidan. Gizon zabala zen, indartsua, ziurrenik lanagatik. Ile gutxi zuen buru gainean, baina bai aurpegiari, bere bizar beltz lodian. Ahots aproposa zuen, lodi-lodia eta altua, bere lan-gileei aginduak builaka esateko.

Lanagatik galdetu zidan, eta berak bazuela niretzat esan zuen. Gurdi eta kamioietan ekarritako kaxak almazenean pilatu behar nituen, eta zerrenda batean jarri. Gurdi eta kamioi hutsak ekarritakoan, almazeneko kaxak pilatu behar nizkien. Kamioi eta gurdirik ez zenean, galdaran ikatza bota behar nuen, eta ez bazen gehiago, erostera joan. Zortzi ordu egingo nituen lan, ze ona den herri komunista batean bizitzea. Baina soldadari zegokionez, 700 errublo hilean baino ez; a, ze miseria. Lana erraza zen, baina gogorra. Arduradunak zera zioen, lana ondo betetzen nuen hilabeteko, 10 errublo gehiago emango zizkidala, beraz, egoera hobetzen joango zen denborarekin.

Nire lehenengo lan eguna zeharo gogorra izan zen. Min nuen leku guztietan eta lehenbailen ohera joan nintzen. Soniak, lagun berria zuelako, pozez etorri zen nire gelaraino, eta afaria ekarri zidan. Ez nintzen oso gose, baina gustura jan nuen eman zidana; zopa pixka bat eta ogia, bera eta ni bezalako afari pobrea. Anastasia ez zen ailegatu oraindik, eta gaueko ordu biak ziren. Gaueko txanda izango zuelakoan, zain ego-teari utzi nion.

Azkenean egia zen, goizeko seietan itzuli zen, begiak ireki ezin zituela, eta atarian bertan erori zen, neure antzera. Ez nintzen konturatu zortziak arte, eta bere hobe beharrez, besoetan hartu nuen, eta bere gelara eraman nuen. Sonia kanpoan zen goizeko paseotxoan egiten, eta beste inor ez zegoenez, neuk egin behar. Bere arropa bustiak kendu nizkion eta galdara piztu nuen berotu zedin. Ez zen oso morala, baina hotzez hiltzen uztea okerrago zen. Badakit ez nukeela begiratu behar izan, baina arroparik gabe, arropekin baino xarmantago zegoen, eta liluraturik hari begira geratu nintzen, bere gerri perfektua eta haren bular handiak. Beno, lehenbailen ohean sartu nuen, okerrago izan baino lehen.

Jaiki zenean, sukarra zuen, ezin izan zuen lanera joan aste osoan, Soniak eta biok zaindu genuen, neuk lanetik etortzean baino egin ez nuen arren:

—Eskerrik asko, Dimitri! —zioen.

—Eskertu Soniari, bera egonda momentu oro zeu zaintzen.

—Ez, elurretara ziplo erori nintzenekoagatik esaten dizut —erantzun zuen irribarrez.

—A, be... beno —esan nion, lotsaturik.

Harrezkero, biok lagun onak ginen, eta horrela pasatu ziren egunak. Ni leher egin da iristen nintzen etxera, eta egun bat bai eta egun bat ez, Anastasia goizeko seietan itzultzen zen. Egun zoriontsuak ziren, baina lehen esan bezala, zerbait gertatu behar oreka hori hausteko.

### **Mosku (Errusia), 1941eko ekainak 22**


Alemaniarrekin sinatutako bakea hautsi egin zuten, Barbarossa izaneko operazioa abian jarritz. Geure tropa garaiezinak suntsituak izan ziren. Errusia garretan zen. Bederatzi aste beranduago, tanke alemaniarrek Moskutik hamar kilometrora zeuden. Stalinek hiria husteko agindu zuen. Gobernua Uraletara joan zen. Denok espero genuen esango zigula nola salbatuko gintuen. Baina berak ez zuen etsi, eta naziak hiritik urrundu zituen kontra-ofentsiba batez.

Baina Errusiak alemaniarren esku jarraitzen zuen. Beraien muga, Volga ibaia zen, eta bertan garaitzea espero zuen Stalinek. Gure asken esperantza bere izena zuen hiria zen, Stalingrado. Soldaduz urri zebilen, eta erreklutamendu kanpainak egin zituen hiri eta herri guztietan. Anastasia joana zen gerrara bi aste lehenago, eta berriz ikusiko ez nuelakoan, neu ere alistatu egin nintzen aberriagatik. Fabrikako asko alistatu ginen, batzuk nire ezagunak, eta haiekin joan ginen tren batean, Volga inguruetaraino, bonbardaketek utzitako paisaiatz gozaten genuen bitartean. Etxeak sutan, zuloak zelaietan, eta hildakoak baino ez inguruetan.

Beldurrez joan ginen. Trenean gindoazela ere artilleria deskargen eztandak ikusten ziren bagoietako leihoetatik. Egin genezakeen gauza bakarra beldurra saihestu, eta erre-zatu... errezatu eztanda horietakoren batek ez harrapatzeko. Iritsi baino lehenago, herri txiki eta suntsitu batean geratu ginen, eta ahots bat entzun genuen kanpotik: Trena, hemendik aurrera, militarra da. Zibil guztiak jaitsi daitezela. Zibilak jaitsi ziren, eta soldadu gehiago igo. Hauek ere beldurrak airean ziren. Aurpegian ikusten zitzaizen sufri-mendua. Denok geunden negarrez hasteko moduan, baina ordurako berandu zen, hilketa basati hartara gindoazen.

*Hiritarrentzako 227. agindua*

*Erretiratzeak geratzeko garaia da. Pauso bat ere ez atzera! Hau izango da gure eslogana hemendik aurrera. Setati babestu behar dugu posizio zein metro bakoitza azken odol tantaraino. Ahal bezainbeste defendituko dugu lur zati bakoitza.*



Odei Ruiz

*Erretiratzen diren guztiak goreneco agindurik gabe, aberriaren traidore dira, eta traidore bezala izango dira tratatuak: beldurti, kakati eta traidoreak ikusi orduko hilko ditugu! Aginduok betetzea, gure ama aberria salbatzea eta etsaia menderatzea da. Hau da gure ama aberriaren deia.*

*Hiritarren defentsa komisarioa*

*Joseph Stalin*

Iristean, moila batean jaitsi ginen, motordun txalupa zaharretan ibaia igarotzeko. Txalupak ohol zaharrez zeuden eginak, eta ura sartzen zen. Hirira iristeko ibaia igaro behar zen, baina denok galdetzen ginen ea iraungo ote zuen. Soldaduak, denak erdiko partean geunden pilatuta: 50 gizon, denak gazteak, eta alboetan, komisario armatuak. Ez nekien zertarako zeuden armatuak, baina beldurra ematen zuten. Bazirudien tiro egin behar zigitela. Komisario batek orri bat zuen eskuetan eta bozgorailu bat bestean. Diskurtsotxo bat ari zen ematen, adore pixka bat emateko, denok zurbil-zurbil eta uzkurtuta baikeunden, hotza edo beldurra zela eta:

—Kamaradak! Gaur harro egongo zarete errusiar jaio izanaz. Indar inbaditzaile nazien aurka borrokatuko zarete zeuon indar guztiarekin. Erortzen den soldadu sobietar bakoitzeko, beraien hamarrekin ordainaraziko diezue. Ez da egongo errukirik galtzaile, beldurti eta traidoreentzat. Ondo gogoratu gure Stalin kamarada handiaren agindua: pauso bat ere ez atzera! Ondo horniturik egongo zarete, zain daukazuen batailetarako, ur, janari, arma eta munizio askorekin. Zer uste duzue dutela beraiek? Ezer ez! Volgara iristeko lasterketan, hornikuntzarik gabe daude, eta ez dute asko iraungo. Geu gehiago gara, eta gure adore mugagabeaz. Garaipena gurea da! Bertan geldituko ditugu faxistak, Stalingradon! —hitzok esan ostean, alemaniarren stukak (hegazkin alemaniarrek) agertu ziren hodeien artetik, eta tiroka hasi ziren. Gure ondoan zeuden hainbat itsasontzi ondoratu, eta gutako asko hilez. Denok beldurtuta, uretara jaurtitzeko ahaleginak egin genituen, baina komisarioek ez ziguten utzi, traidore deitzen ziguten. Batek lortu zuen, baina tiroz hila izan zen. Horrek denoi ihes egiteko gogoia kendu zigun, eta bertan gerarazi.

Dena lanbroz beteta zegoen ibaiaren erdian, ezin zen ezer ikusi, baina bai entzun. Inguruko itsasontzikoak hiltzen eta hegazkinen tiro hotsak ozenak ziren. Noiz amaituko zen sufrimendu hura. Handik aurrera ikusiko nituen sarraski eta basakerien berri jakin izan banu, nahiago izango nuen komisarioak tiro bat eman balit. Zerbait ikusten zen ibaiaren beste aldean, ez nekien zer izan zitekeen, baina laster jakingo nuen. Beste moila bat zen, lehengoa baino txikiagoa, eta jendez betea. Iritsi orduko, denok korrika eta bultzaka aritu ginen elkarri. Hildakoak zein zaurituak baino ez zeuden, eta alboan ilera handi bat, armak hartzeko. Kaxak eta kaxak zeuden, eta bi komisario bertakoa banatzen:

—Erriflea duen soldaduak tiratu egingo du, errifle gabekoak, errifledunari jarraitu behar dio. Errifle duna hiltzean, errifle gabeak bere erriflea hartu behar du, eta tiratu —banan banan, bakoitzari gauza bat ematen ziguten, bati erriflea, eta besteari balak.

Neuri ez zidaten erriflerik eman, eta amorruez beteta nintzen, nola aterako nintzen bizirik handik armarik gabe?

Moilen beste aldean, hildakoz beteta zegoen erribera bat baino ez zegoen, artilleria zuloz bete. Goian alemaniarrek zeuden ametralladoreekin, igotzen saiatzen zen edozeini tirokatzen. Neu beste askorekin korrika joan nintzen gorantz, denak hil eta auto suntsitu baten atzean ezkutaturik geratu nintzen arte. Nola aterako nintzen bizirik handik zen oraindik nire duda handia, baina sarraski amaigabe horren erdian, gauza bat nuen gogoan: non izango ote zen Anastasia? Faltan botatzen nuen, baita Soniaren te gozoa ere. Zergatik ez ote nintzen Moskun geratu lasai-lasai? Galdera horien erantzuna ez zuen inork jakingo; baina, jakin nahi banuen, infernu hartatik irten beharko nuen, eta horretarako arma bat behar. Soldadu pilo artatik, bat niregana etorri zen, bera ere tiroez babesteko asmotan:

—Zer moduz lagun, badut laguntzerik? —esan zidan.

—Ez litzaidake gaizki etorriko hor daramazun errifle hori.

—Tori, nahi baduzu! Balak ahitu zaizkit. Zu saiatu zaitetz alemaniarrek lanpeturik uzten, neuk irrati mezu bat bidaliko dut.

—Ongi —irrati bat zeukan poltsa batean, eta borrokako egoeraz hitz egin zien agintegorenei.

—Denok hilko gara zerbait ez badugu egiten! Jaurti ezazue artilleria deskarga bat ibaiko erribera gainaldean! Txanda!

—Nahikoa izango da? —galdetu nion builaka, ez baitzen ezer entzuten hainbeste tiro artean.

—Oraintxe ikusiko dugu —eta hogeitasegundo larriren ostean, artilleriaren eztrandak ikusi ahal izan genituen, baita alemaniarren garrasiak ere. Deskarga amaitu arte itxaron genuen, eta, amaitzean, algaraka denok igo ginen, geratzen ziren bizidun apurrak gorrotoz akabatzeke. Pozik ginen, erribera geurea zen, eta hiria aurrean genuen.

Bizirik ginenon artean, hildakoak jaso, eta sutan erre genituen. Ez nuen oso atsegin, baina identifikatu gabeak ziren, eta usteltzeaz zeuden; erre egin behar ziren. Guztia amaitzean, bizirik ziren komisarioek, zazpi, geratzen ginen soldaduak taldeka sailkatu gintuzten, hirian barrena joateko alemaniarren bila, ibaia ez zen beste muga bat finkatzeko. Nire taldean 21 ginen, haien artean Moskuko fabrikari nirekin lan egin zuen bat, Nikolai, eta irrati lehengo gizona, Boris. Sarjentu batek gidaturik, iparraldeko zona arakatu behar genuen, alemaniarren bat aurkitu arte. Talde guztiak leku bereraino iritsi ginen, plaza gorriraino. Plaza hori, oso famatua zen, bertan egin ohi zirelako manifestaldi guztiak, komunismoaren alde.

Plazak ez zuen ezer berezirik, esertzeko bankuren bat bazen, baina erdian geure lehengo buruzagiaren estatua genuen, Leninena. Denok geunden hari begira, ukitzera

ere joan ginen... gaizki egin genuen. Plazaren mendebaldean, alemaniarrek zeuden trintxera batean. Agerian ziren ia denak hil zituzten, ezkutuan geundenak ikararaziz. Korrika zetozen honantz, baina ez ziren iritsi. Bi ordu beranduago, alemaniarrek oraindik bertan jarraitzen zuten. Ez zuten mugitzeko inolako asmorik, hor geratuko ziren geu harantz joan arte. Egoera hura jasangaitza zen, geuri begira zeuden, baina ez zuten inor bidaltzen. Zerriak!

Azkenean, komisarioak etorri ziren, eta errefortzu batzuk, baina, hala ere, geuk eman beharko genuen lehen urratsa. Komisarioek, 147 gizonetatik, 25 bidali zituzten lehenengo erasoaldian. Zergatik baina? Denok batera aukera gehiago genituen! Erasoaldia porrot itzela izan zen, lau baino ez ziren bizirik irten eta atzera bueltatu ziren:

—Pauso bat ere ez atzera! Itzuli zaitetze! Traidore aleenak! Akaba itzazue! —komisario hark hura esatean, beste komisario guztiek berdin egin zuten, bizidun haiek akabatuz.

—Orain zeuon txanda da. Ez dezala inork atzera pausorik eman edo akabatuko dugu! Prest! Aurrera!

Hori esan orduko, denok errifle bana harturik, korrika joan ginen alemaniarrek akabatzen, baina ez genuen aukerarik, denak pixkanaka hiltzen ari ziren aurrera gindoaizen bitartean, eta atzera joatea ere ideia ona ez zenez, estatuaren atzean gelditu ginen ezkutaturik gutako batzuk, neure lagunak barne.

—Zer egingo dugu, Dimitri! —zioten nire lagunek izan ere nire ideia zen ezkutatzearena.

—Irteten bagara, gureak egin du, itxaron dezagun apur bat tiroak amaitu arte, pentsatuko dut zerbait —ez nekien zer egin, baina aurrera joatea, heriotza segurua zen, baita atzera joatea ere. Zer egin genezakeen?

Tiroak amaitu ziren, alemaniarrek denok hil ginela pentsatuko zuten antza. Komisarioak ere han atzean zeuden, ziurrenik berdina pentsatzen zuten. Hortik atera nahi bagenuen, gauera arte itxarotea proposatu nuen, iluntasunean erasotzeko. Gutxi ginen, 20 inguru, baina gauez trintxera zikin horretan ez ziren askoz gehiago izango:

—Entzun! Lurretik arrastaka joango gara, hildakoen artean ezkutatuz, eta neuk esatean, denok altxa eta trintxerara sartuko zarete —esan nuen baxutik, soinurik ez egiteko.

—Ongi, zeuri esker gaude bizirik, infernuraino jarraituko dizugu.

Hori esateak taldeko buru bilakatzen ninduen; esan nahi zuen komisarioengan baino konfiantza gehiago zutela nigan, eta horrek pozarren jartzen ninduen.



—Beno, erdi bat eskuinetik eta beste erdia ezkerretik, nire seinalean —denak prest jarri ziren nire aginduetara, eta irten egin ginen ezkutalekutik—. Aurrera!

Ehun bat metro zeuden trintxeraraino, arrastaka egiteko askotxo, baina iluntasunak eta lanbroak lagun izan genituen, eta iritsi ahal izan ginen. Eskuko seinale batzuen bidez, trintxeran sartu eta ikusten zuten edozein akabatzea agindu nien. Denok kasu egin zidaten, baina ez zen beharrezko izan tirorik egitea, hiru baino ez ziren, eta lo zeuden. Soinurik ez egiteko, errifleekin buruko kolpe isil eta indartsuez akabatu genituen. Bertako arma eta munizioak hartu genituen, baita janaria ere, ezkutaturik, egun osoan ez genuen ezer jan, eta trintxera arakatu genuen. Luzea zen, baina erraza, inor ere ez baitzegoen bertan. Alexei izena zuen batek, gauza bat aurkitu zuela zioen, eta jarraitu egin genion trintxeraren atzeraino. Zer zen ikusi beharrekoa? Bunker bat!

—Auskalo zenbat jende dagoen hemen! —zioten.

—Nola arraio akabatu behar ditugu horiek denak?

—Ez da arazoa izango, begira zer aurkitu dudan —denok begiratu zuten jakin minarekin—. Dinamita kargak! Bunkerrean sartuko gara, barneraino, eta zutabe eta horma nagusietan jarriko ditugu kargak. Irtetean, denak lehertuko ditugu, eta lo diren bitartean hilko dira.

Harrigarria da zer nolako plan itzelak etortzen zaizkidan burura; badut buruzagi itxura.

Badaezpada ere, hil genituen alemaniarren uniformeak jantzita sartu ginen, esna baziren engainatzeko. Bunkerra nik uste baino txikiagoa zen: hogeit metroko korridore bat munizio eta janari kaxez beteta, bi gela alboetan eta irteera atea korridorearen amaieran. Ateak ireki, eta gutxienez hogeita hamarna pertsona ziren gelako. Ez genuen ikusi bunker osoa botatzeko arrazoirik, beraz, gelako berogailurako gasolina bidoiak hustu genituen, eta lurrean ziren granada kaxak bota genizkien. Amaitzeko, Borisek zigarroak erretzeko zituen pospolo pare bat bota eta pum!

Gelak irekitzean, ez genuen inor ikusi bizirik; aurkitu genuen gauza bakarra, ikaragarriko erre usaina izan zen. Soinua ikaragarria izan zen; nik uste Stalingrado guztiak entzun zuela. Baita komisarioek ere:

—Entzudazue, gera zaitezte denok irteera atea zaintzen, agin soinuagatik alemaniarren bat dator. Boris, etor zaitez nirekin komisarioengana —denak atera zituzten beraien armak, eta ateari apuntatu zioten.

Boris eta biok plaza korrika igaro genuen, komisarioei builaka, naziak ginela jakinez gero, akabatuko gintuzten bestela. Komisarioek geure ahotsak entzutean, zur eta lur geratu ziren, bizirik irten ginela jakitean. Geuri apuntatzen hasi ziren, baina builen artean, alemaniarrek akabatu genituela esan genien. Ezin sinetsirik, nola egin genuen azaldu genien, baita izan nituen bi planak:

—Lan bikaina, zeure taktika eta aginte gaitasunagatik, sarjentu izendatzen zaitut, eta denok duzue astebeteko baimena. Emadazu irratia, aginteari deituko diot —zioen komisarioak, oraindik zur eta lur—. Stalingradotik deika, Stalingradotik deika...

*Imanol Zinkunegi*

